



Aurkibidea

1.	SARRERA	3
2.	TESTUINGURUA ETA JUSTIFIKAZIOA	5
3.	ESKU HARTZEKO ARDATZAK	9
4.	2025-2026 URTEKO PLANAREN HELBURUAK	11
5.	KALITATE SISTEMA	16
6.	2025-2026 IKASTURTEKO EKIMENAK	20
6.1.	Ekimen giltzarriak 2025-2026 ikasturtean	20
6.2.	2025-2026 ikasturteko ekimenen zehaztapena:	20
7.	EUSKALDUNTZEA ETA EUSKARAREN NORMALKUNTZA	24
8.	IKUSKARITZAREN FORMAZIOA. FORMAZIO PLAN INTEGRALA. GOGOETA ETA EKINTZA.	25
9.	IKUSKARITZA-FUNTZIOAREN EBALUAZIOA	26
10.	LURRALDEETAKO URTEKO PLAN OROKORRA ZEHAZTEA	27
11.	2025-2026 URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA ETA EGUNERATZEA	27
12.	URTEKO PLANAREN EGOKITZAPENAK	27
I.	ERANSKINA: URTEKO PLANAREN EGOKITZAPENAK	29
II.	ERANSKINA: LAN TALDEEN ANTOLAKETA	30
	Lan taldeen antolaketa	30
	Ikastetxeak hobetzen laguntzea	30
	Eskubide eta betebeharren bermea-arauen kontrola	32
	Bizikidetza - Gatazkak konpontzea	35
	Programen jarraipena - Sistemaren helburuak	36
	Beste prozedura eta batzorde batzuk	36
	Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritzeko jarduerak	38
III.	ERANSKINA: HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN FORMAZIO PLANA	40
	Inguruabarrak	40
	Formazio ibilbidea	41
	Helburu nagusiak	42
	Ikuskariaren profila	43
	2025-2026 urteko planaren helburuak	45
	Ikuspegi orokorra	46
	Ikasturteko formazio saioen planifikazioa	47
	Balorazio eta jarraipen tresnak	50
	Formazio saioak	51

1. Sarrera

Aurkezten dugun 2025-2026ko Hezkuntza Ikuskaritzaren plan hau 2023-2026 hirurteko planaren azkena da. Azken urteotako planetan genion modura, aurtengo planak, guztiek egon beharko luketen modura, atzera begira ez ezik, aurrera begira ere egon behar du: atzera begira, azken urteotan izan ditugun hutsuneak bideratzeko eta ondo egindakoa sustatzen jarraitzeko; aurrera begira, mugimendu etengabearen dagoen gizarte batek eskatzen dizkigun erronkei erantzuteko, hauek identifikatuz eta, ahal denetan, aurre hartuz, jarrera heuristikoa lagun.

Atzera-aurrerako begiratu hau da Hezkuntza Ikuskaritzaren 2023-2026 hirurtekoaren oinarri, guztion artean, elkarlanean, diseinatu eta landu duguna. Elkarlan hau egiazkoa izan dadin, ezinbestekoa izango da plantilla osatzen dugunon inplikazioa eta kide izatearen sentimendua sendotzen jarraitzea.

Azken urteotako planetan bezala, aurtengo plana egiteko garaian kontuan hartu dira, besteak beste, honako hauek: interes taldeen asebetetze galdetegiak; ikuskarien nahiak; lan-banaketa; AZ eta lan-taldeetan egindako lanean jasotakoak; eta, bereziki, ikuskarien iritzi jasoketatik eratorritakoak.

Hau esanda, garbi dugu Hezkuntza Ikuskaritzaren planak (hirurtekoak nahiz urterokoak) diseinatzeko eta egiteko garaian ikuskari guztion parte hartzeak aktiboa behar duela izan. Helburu hori lortze aldera, aurtengo planak bide horretan beste urrats bat eman du eta 2025eko maiatzaren 10ean ikuskarien lagin batekin egindako bilkuratik jasotakoa hartu du aintzat, besteak beste. Bide hau hobetzen eta sakontzen joatea izango da datozen urteotako erronka nagusienetariko bat.

Urteko plan honek, esan bezala, hirurtekoan ezarritako helburuak izango ditu oinarri, eta hauek, ikuskaritzaren esku-hartzearen hiru ardatzi erreparatuz landuko dira: ikuskaritzari begira, ikastetxeei begira eta Hezkuntza Saileko gainerako zerbitzuei begira. Ikastetxeei dagokienean, aurtengo ikasturtean aparteko garrantzia hartuko dute ebaluazio-sistema integralak; matematikako, irakurtzeko eta zientziako konpetentziak eta bizikidetza positiboak. Ikuskaritzari dagokienean, ikuskarion formazio integralari azpimarra egitea ezinbestekoa dela irizten diogu, hezkuntzan ematen ari den berrikuntza-prozesuan erreferente bihurtu gaitezten. Azkenik, Hezkuntza Sailaren gainerako zerbitzuei dagokienean, lanean jarraituko dugu, bereziki, Sailak ezarritako lan-ildoekin bat eginez, betiere, sistemaren kalitatea lortze aldera.

Guzti horretaz gain, eta hiru ardatzok bustiko duen langarraren moduan, pertsonen eremuan identitate profesionalak lantzen jarraituko dugu.

Ezin ahantz dezakegu, halaber, etorkizuneko euskal hezkuntza-sistema eraikitzen ari den une honetan, Hezkuntza Ikuskaritzak eredu behar duela izan, hezkuntza-komunitateari begirada profesionala eta kualifikatua eskainiz, eta guztion artean eraikitzen ari garen bide horretan, urteko plan hau tresna ezin egokiagoa dela sinetsita gaude. Testuinguru honetan kokatu behar dugu azken ikasturtean pilotatu ditugun lan antolaketa modu berriak. Uste dugu Hezkuntza ikuskaritzan lan eredu berriak pilotatzeak funtsezko hainbat abantaila eskaintzen dituela. Eskala handiko ezarpenaren aurretik arazoak identifikatzea eta konpontzea ahalbidetzen du, ikuspegi eraginkorragoa eta efizienteagoa ziurtatuz. Gainera, pilotaje horiek langileen motibazioa eta konpromisoa areagotu dezakete, aldaketa- eta garapen-prozesuetan parte hartzen baitute. Pilotajearen datuak biltzeak eta feedbacka egiteak oinarri sendoa ematen du erabaki informatuak hartzeko, hezkuntza-ikuskaritzaren kalitatea eta garrantzia hobetuz. Ikasturte honetan, besteak beste, Lidergoan eta Bizikidetzan jarraituko dugu lan egiteko modu berri hauetan sakontzen.

Ingurumaria honetan, azken ikasturtean ikuskariaren profil konpetentziala definitzen aritu gara, egungo gizarteak zehazten dituen erronkei erantzun gaurkotu eta eraberritu bat emate aldera. Identitate profesional honek gidatu behar gaitu ikuskari profil gaurkotua zehazten jarraitzeko eta profil horretan oinarrituta dagoen ikuskarrien ebaluazioa diseinatzeko.

Orobat, euskara ardatz duen Euskal Hezkuntza Sistema eleaniztun batean ikuskarion jardun profesionalean euskararekiko dugun jarrerak aparteko garrantzia hartzen duela sinetsita gaude. Hari-mutur horretatik tiraka, urteko planaren aitzinsolas honetan egoki iruditzen zaigu Ikuskaritza arautzen duen 98/2016 Dekretuak gai honen inguruan jasotzen duena azpimarratzea: *Formazio eta euskararen erabileraren sustapena lehentasunezkoak izango dira Hezkuntza Ikuskaritzaren Urteko Planetan*. Testuinguru honetan ezinbestekoa irizten diogu, 19/2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa, *Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoak* eskaintzen dituen aukerak baliatzeari.

Azkenik esan, urteko plan honek, azken urteotakoak bezala, hitzaurre honen eta testuinguruaren azterketa baten ondoren, 2025-2026 ikasturterako planteatutako helburuak eta horiek lortzea erraztuko duten ekimenak aurkezten dituela, besteak beste.

Hau guztia kontuan hartuta, aurkezten da 2025-2026 urteko Hezkuntza Ikuskaritzaren Plana, gizarteak hezkuntza arloan dituen premia aldakorrei eraginkortasunez erantzuteko tresna gisa.

Xabier Balerdi Iraola

Hezkuntza ikuskari nagusia
2025eko urria

2. Testuingurua eta justifikazioa

2025-2026 urteko plan hau honako testuinguru-elementu hauek baldintzatuko dute bereziki:

a. Aldaketak ikuskaritzako plantillan

Azken urteotan Hezkuntza ikuskaritzan aldaketa nabarmenak izaten ari dira, erretiroen kopuruak gora egin duelako, eta, ondorioz, ikuskari berriak sartu behar izan dutelako sistemaren eraginkortasunari eusteko. Edozein erakunderentzat, ezagutzaren transferitzea eta jarraitutasuna bistako erronkak dira. Ikuskaritzan, trantsizio honi ekiteko, ikuskari berriak hautatzeko prozesuak egiten ari gara, hautagaiek beharrezko trebetasun teknikoak izateaz gain, hezkuntza kalitatearekiko eta etengabeko hobekuntzarekiko konpromiso sendoa dutela baieztatuz. Ingurumaria honetan, ezinbestekoa da lanean jarraitzea ikuskaritzara ahalik eta profesional konpetenteenak erakartzeko.

Testuinguru honetan ezin ahantz dezakegu 24-25 ikasturtearen azken hiruhilekoan Ikuskaritzan Lan Eskaintza Publiko bat (LEP) egin dela, eta horren bidez kidegokoak diren ikuskarrien kopuruak gora egingo duela plantillaren egonkortzea indartuz. Lankide berrien integrazioa egokia lehentasunezko helburu bihurtuko da.

Honekin batera, ikuskari berrien harrera-planean txertaturik, ikuskari berrientzako prestakuntza-eta tutoretza-programa sendoa bat ezartzen ari gara, haien integrazioa eta garapen profesionala bizkortzeko diseinatua. Programa horrek hezkuntza araudi eta prozedurei buruzko prestakuntza teorikoaz gain, ikuskari esperientziadunen tutoretza biltzen ditu. Tutoretza honi esker, ikuskari berriek zuzeneko orientazioa eta laguntza jasoko dute, ikuskaritzarako hasierako urratsetan hain beharrezkoak direnak.

Guztiarekin, planteatzen diren erronka berriei aurre egiteko, beharrezkoa da ikuskariok ezagutza eta esperientzia hori ahalik eta arinen eskuratzea aipatutako erronkei ekiteko. Beraz, tutoretzan, formazioan, ebaluazioan eta hautapen prozesuetan sakontzen jarraitu behar dugu, zerbitzuaren beharretara eta hezkuntza-komunitateari eskaini behar dion erantzunera egokitutako gaitasunak erreferentziatzen hartuta.

Gaitasun horiek jada garatzen ari garen ikuskarion profil konpetentzian sustraituak egon behar dute

b. Sailaren egitura organiko berria

381/2024 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Hezkuntza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen du. Dekretu honek ikuskaritzaren mendekotasun organikoa Hezkuntza sailburuaren esku uzten du, eta mendekotasun funtzionala Hezkuntza Politiken eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzen esku.

Sailburuaren mendekotasun organikoak Hezkuntza Ikuskaritzaren balio estrategikoa indartzen du, beste organoekin koordinazio eraginkorra ahalbidetzen du, jardueren zeharkakotasuna

bermatzen du eta hezkuntza sistemaren eskaerei modu arin eta egokian erantzuteko gaitasuna ematen dio.

c. Ikastetxeetatik eta hezkuntza-administrazioko beste zerbitzu batzuetatik datozen eskarien kopurua eta konplexutasuna handitzea

Etengabean datozen aldaketak bizitzea egokitu zaigun gizartearen ezaugarrietako bat da. Testuinguru sozioekonomiko eta teknologikoaren bilakaerak eta etengabeko lege-eguneratzeek gero eta espezializatuagoa eta konplexuagoa den arreta eskatzen dute. Ondorioz, ikuskaritzari iristen zaizkion eskarien kopurua nabarmen handitu da, eta horrekin batera, horien trataerak behar duen denbora eta prestakuntza maila.

Egoera horrek erronka handiak planteatzen ditu Ikuskaritza Zerbitzuarentzat, bai antolaketa-mailan, bai prestakuntzan, bai baliabide pertsonalen kudeaketan. Etengabeko egokitzapena beharrezkoa da eskarien mailari eta konplexutasunari erantzun eraginkorra emateko. Bistan da, lankidetzeta eta informazioaren trukea indartzea ezinbestekoa da kalitatezko erantzunak eskaintzeko.

Hori dela eta, Ikuskaritza-zerbitzuak ahalik eta eraginkortasun handiena bilatu behar du bere zereginetan, eta lehentasun-irizpideak ezarri behar ditu bere jardueren garapenean.

Horretaz gain, ikuskaritzaren eraginkortasuna areagotze aldera ditugun prozesuen eta lantaldeen berrikuspena egin beharko dugu. Ariketa horrek azken urteotan indarrean egon diren prozesuen kopurua doitzea ekarri behar du eta, horrenbestez, gure jarduna egiazko beharretara egokitzea.

d. Hezkuntza Sailaren planak eta proiektuak

Hezkuntza Ikuskaritzaren eginkizunetako bat da Hezkuntza Sailak sustatutako programen jarraipena egitea, eskuratu nahi diren helburuen lorpen-maila egiaztatzeko. Gainera, helburu horietako asko diseinatzen eta garatzen laguntzen du.

Hona hemen ildo aipagarrienetako batzuk: Euskal Eskola Publikoa eraldatzeko I. plan estrategikoa; Hezkuntza emaitzak hobetzeko 2024-2028 estrategia integrala; Eraldatzen Programa; Indartuz; Hedatze; Zuzendaritza eta Lidergoa; Metodologia berriak; Elkarbizitza; Curriculum eta ebaluazio hezitzailea; ikuspegi konpetentziala ikas-irakas prozesuetan; 17/2023 hezkuntza legearen ondoriozko garapena (...); etab.

Hauek guztiek planteatuko dizkiguten erronkei eta aukerei aurre egiteko Ikuskari guztion formazioak egundoko garrantzia hartzen du.

e. Memoriaren ondorioak

Urteko memoriak ikastetxeetan egiten diren jardueren emaitzak jasotzen ditu. Bertan, talde arduradun bakoitzak proposamenak egiten ditu Ikuskaritzaren esku-hartzea hobetzeko eta, hala badagokio, bideratzeko. Gainera, hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko datuak eta ondorioak jasotzen dira.

f. Gogobetetze-inkestak eta ikuskarien artean egindako iritzi jasoketa

Urteko Ikuskaritza Planean jasotako jarduerari eta ikastetxeetan egiten diren moduari buruzko iritzia jasotzeko, besteak beste, administrariei eta ikastetxeei zuzendutako gogobetetze-inkestak erabiltzen dira.

lazko ikasturtean aparteko garrantzia hartu zuen maiatzean ikuskarien lagin batekin egin zen aurrez aurreko bilerak. Hauetatik guztietatik jasotako iritzi nahiz gogoetek eta hauetan oinarriturik erakunde gisa hartu ditugun konpromisoek urteko plan hau diseinatzeko garaian bidea marraztu digute.

Urteko plan hau egituratzeko garaian, hiru iturritatik jasotako ekarpenak kontuan hartu dira: ikuskaritza, ikastetxeetatik eta administrarietatik. Ikuskarien partetik, berrikuntza sustatzeko jarrera aktiboa hartzea funtsezkoa dela azpimarratu da hezkuntza-sistemaren etengabeko hobekuntzarako. Horrez gain, ebaluazio hezigarriaren garrantzia azaleratu da, eta formakuntza jarraitua bultzatzea funtsezkoa dela ondorioztatu da. Lanaren banaketa orekatua eta helburu argiak dituen urteko plan errealista bat diseinatzeko, barne-komunikazio sendo batekin batera eskatu da.

Orobat, ikastetxeetatik, ikuskarien presentzia handiagoa eskatzen da.

Administrazioari dagokionez, tramitagunen formazioa indartzea, V-92 aplikazioaren erabilera argitzea eta lurraldeen arteko koordinazioa sendotzea funtsezkoak direla ikusi da eguneroko jardunaren koherentzia eta eraginkortasuna bermatzeko.

Proposamen hauek guztiek elkarren arteko osagarritasuna erakusten dute eta ikuskaritzaren jarduna hobetzeko bidea marrazten dute.

g. Digitalizazio-prozesuetan aurrerapenak. Tresna informatiko berriak

Ikuskaritzak berea duen V-92 aplikazio informatikoaz gain, azken ikasturteetan, gorakada nabarmena izan dugu bestelako tresna informatikoen erabileran: Office 365 : SharePoint, Onenote, Outlook egutegia, Forms, Teams; HIKU...

Horretaz gain, administrazio-kudeaketarako Tramitagune plataforma gero eta presentzia handiagoa hartzen ari da gurean. Ikasturte honetan, tresna horiek edo beste batzuek Ikuskaritza-zerbitzuari eskaini diezazkioketen aukera berrietan sakondu behar dugu eta, horretarako, tresna digital hauek eskaintzen dizkiguten aukerak baliatu ahal izateko, hemen ere, formazioaren garrantzia azpimarratu nahi dugu. Bereziki, gure administrariaren formazioa sustatu nahi da, tresna hauen erabileran kompetentziak sendotzeko eta eguneroko lanaren eraginkortasuna hobetzeko.

V-92ari dagokionez, gurean dugun bitartean, duguna hobetzen jarraitu behar dugu. Horretarako, bi bide aurreikusten ditugu urteko plan honetan: V-92 AZ-ren lan-taldea mantentzearen beharra, batetik; eta, EJEkoekin harreman-sare egonkor eta sistematizatu bat eraikitzea, bestetik.

Testuinguru horretan EJIekoek ikastetxeekin egiten dituzten bileratan presente egongo gara, besteak beste, ikastetxeek dituzten eskarien berri izateko.

Datuen tratamendua gero eta garrantzitsuagoa da hezkuntza ikuskaritzaren jardunean. Gaur egungo ikuskaritza-lanetan, informazioaren kudeaketa zehatza eta fidagarria funtsezkoa bihurtu da.

Orobat, egiten ditugun esku-hartze guztietatik ondorioztatzen diren datuak behar bezala kudeatzeko beharra nabarmendu nahi da. Datu horiek egoki jasotzea, modu sistematikoan antolatzea eta fidagarritasuna bermatzea funtsezkoa da ikuskaritzaren jardura objektiboa eta eraginkorra izan dadin. Horrez gain, datu horien interpretazio egokia egitea, hau da, irakurketa estrategiko bat egitea, ezinbestekoa da

Guztiarekin bide bat eraikitzearen beharra ikusten dugu, maneiatzen ditugun datu ugarien erabilpen jasagarria egite aldera.

h. Euskal Eskola Publikoaren Lehen Plan Estrategikoa (2025-2028)

Euskal Eskola Publikoaren Lehen Plan Estrategikoa (2025-2028) hezkuntza-sistema bidezkoagoa, inklusiboagoa eta kalitate handiagokoa lortzeko diseinatu da. Lau dimentsiotan antolatutako hamar ardatz estrategiko ditu, eta Hezkuntza Lege berria garatzeko oinarriak ezartzen ditu. Lidergo pedagogikoa, irakasleen rola, hezkuntza-komunitatearen aktibazioa eta ebaluazioaren kultura indartzen ditu. Euskararen erabilera, eleaniztasuna, digitalizazioa eta nazioartekotzea ere sustatzen ditu. Ikasleen ongizate sozio-emozionala eta bizikidetzaren erdigunean jartzen ditu. Planak etengabeko hobekuntza eta berrikuntza pedagogikoa bultzatzen ditu. Hezkuntza ikuskaritzak ikastetxeetan datozen urteetan egingo den planaren inplementazioan lagunduko du.

i. Hezkuntza Emaizak Hobetzeko Estrategia Integrala

Estrategiak ikasleen errendimendu akademikoa hobetzea du helburu, eta ikuskaritzak horren jarraipena egingo du. Barne eta kanpo emaitzak aztertzearekin batera, ikastetxeen beharrak zehazteko eta esku-hartze egokiak proposatzeko bidean gogoeta sustatuko du ikuskariak. Irakasleen prestakuntzari, ikasle zaurgarrien laguntzari eta ikaskuntza sozio-emozionalari ikastetxeek jarri behar dioten arreta ere suspertuko du. Estrategia honek eskola emaitzak hobetzea du helburu eta ikuskaritzak prozesu horretan lagunduko du. Hori dela-eta, urteko planean sartzea ezinbestekoa da.

3. Esku hartzeko ardatzak

Ikuskaritzaren egitekoak ardatz jakin batzuen bidez garatzen dira. Horiek helburuak lortzeko erreferente izango dira, eta Ikuskaritza-jarduerari koherentzia emango diote ikuspegi orokor batetik.

Hiru dira 2023-2026 hiru urteko planean ezarritako ardatzak:

- 1. Ikuskaritza (A1)**
- 2. Ikastetxeak (A2)**
- 3. Lankidetzak (A3).**

Hala ere, adierazi behar da garatu beharreko jarduera gehienek hirurei dagozkien esparruetan eragiten dutela, erkidego honetako Hezkuntza Ikuskaritzak hartu duen izaera sistemikoa eta holistikoa zentroen ikuskatze-ereduaren arabera diseinatzen eta garatzen baitira.

Hiru ardatza horietatik sei eremu orokor eratortzen dira 2023-2026 hiru urteko planean, eta horiek dira 2023-2026 hiru urteko zazpi helburuen iturri:

ARDATZA (A)

A1: IKUSKARITZA

ER1: IKUSKARITZAREN HOBEKUNTZA

A2: IKASTETXEAK

ER2: IKASTETXEETAN ERAGITEKO ESTRATEGIAK

ER2.1: IRAKASLEAK

ER2.2: LIDERGOA

ER2.3: IKASLEEN ONGIZATEA

ER2.4: ERALDAKETA PEDAGOGIKOA

A3: LANKIDETZA

ER3: LANKIDETZAREN SUSTAPENA

2023-2026 Helburuak

1.- Egun dugun antolaketa eta kudeaketa-sistema, behar berrietara egokitzea.

2.- Ikuskaritza-zerbitzuaren gaitasun profesionalaren hobekuntza sendotzen jarraitzea.

3.- EAEko ikastetxeetako irakasleen gaitasun profesionala hobetzea.

4.- Ikuskaritza Ikastetxeko lidergoan eragiten jarraitzea, zuzendaritza funtzioaren diseinu berria inplementatuz, eta zuzendaritza proiektuen kalitatea areagotzen lagunduz.

5.- Araudiak hezkuntza-komunitateari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak bermatzeko, ikasleen ongizatea sustatzeko estrategiak garatzea, elkarbizitzari probentzietatik eraginez.

6.- Hezkuntza ingurunearen eraldaketa positiboa ardatz, Curriculum berriaren inplementazioaren ikuskatzea egitea, arreta berezia jarritz ikasleen ebaluazio hezitzailean.

7.- Hezkuntza-administrazioarekiko lankidetzaren eta, oro har, gizarteari ematen zaion erantzuna hobetzen aurrera egitea.


4. 2025-2026 Urteko planaren helburuak

Ikasturte honetako helburu nagusiak

2025-2026 Helburuak		
1. ARDATZA	2. ARDATZA	3. ARDATZA
1. Lan banaketa berrikustea eta lan-tresna digitalen erabilera hobetzea, ikuskaritzaren behar eta erronkei hobeto erantzuteko 2. Komunikazio-kanalak berrikustea eta egokitzea, informazioa modu garden, azkar eta arinean partekatzeko.	3. 2024-2028 Hezkuntza Emaitzak Hobetzeko Estrategiaren barruan, Ikasleen emaitzen azterketa sistematikoa sustatzea ikastetxeetan. 4. Zuzendaritza taldeen jardun profesionala indartzea, lidergo pedagogikoa sendotuz eta ikuskaritzaren laguntza hobetuz. 5. Ikastetxeetan elkarbizitza eta ikasleen eta irakasleen eskubide eta betebeharren jarraipena egitea ikuskaritza-bisiten bidez. 6. Curriculumak ikastetxeetan nola inplementatzen ari den ikuskatzea.	7. Eskola Publikoaren 2025-2028 Plan Estrategikoaren ezarpenean ikastetxeei laguntzea, ikuskaritzaren orientazioaren eta jarraipenaren bidez, bide-orri estrategikoa errealitate bihurtzeko
8. Izaera transbertsala: Pertsonak. Jarduera profesionalaren kalitatea hobetzeko helburuarekin, pertsonen ebaluazio-prozesu integratu bat garatzea.		

Jarraian, **2025-2026 urteko helburuak (h)** eta haien lorpen-adierazleak aurkezten dira, 2023-2026 hiru urteko planaren ardatzei lotuak.

Denboralizazio ikurrak: Lehen hiru hilabetea **1.H**; Bigarren hiru hilabetea **2.H**; Hirugarren hiru hilabetea **3.H**; Ikasturte osoa **IO**



2025-26 Ikasturteko helburuak	Ekimenak	Lorpen adierazleak
1. Lan banaketa berrikustea eta lan-tresna digitalen erabilera hobetzea, ikuskaritzaren behar eta erronkei hobeto erantzuteko	Lan-taldeen lan-kargaren balorazioa egin	Lan-talde guztien (%100) lan-kargari balore bat eman zaio eta Lurralde artekoan kontrastatu da, ikuskarrien arteko lan-banaketa orekatua egiteko 1.H
	Erakundean lan banaketaren egoeraren diagnostikoa egin	Erakundeari begira urtean zehar egin beharreko lanen banaketa orekatua aurkeztu da. 1.H Ikasturte hasieran, Lurralde arteko Batzordean ikuskarrien %100en lan-kargaren azterketa egin da. 1.H
	Lan-taldeak osatzeko garaian ikuskarrien nahiak kontuan hartu, eraginkortasuna eta koherentzia bilatuz	Ikuskari guztiei galdetu zaie. 1.H
	Egungo tresna digitalen erabilgarritasuna eta euren arteko bateragarritasuna aztertu	Ikuskaritzaren Plan digitala diseinatzan hasi da eta horren barruan atal bat eskaini zaie gai hauei. IO
	Behar berrietara egokitutako tresna digital berriak aztertu eta aplikatu	
2. Komunikazio-kanalak berrikustea eta egokitzea, informazioa modu garden, azkar eta arinean partekatzeko.	Erabiltzen diren komunikazio-kanalak eta tresnak (posta elektronikoa, bilera-sistemak, barne-plataformak, bilerak...) aztertu	Komunikazio kanalei buruzko AMIA bat egin plantillarekin 2.H
	Interes taldeen iritzia bildu	Komunikazio-kanalen inguruko balorazio jaso da asebetetze inkestetan. 3.H
	Barne komunikazio protokolo bat definitu	Barne komunikazio protokolo bat hedatu da. 3.H



2025-26 Ikasturteko helburuak	Ekimenak	Lorpen adierazleak
3. 2024-2028 Hezkuntza Emaitzak Hobetzeko Estrategiaren barruan, Ikasleen emaitzen azterketa sistematikoa sustatzea ikastetxeetan.	Ikasleen emaitzak aztertzeke ikuskariei orientabideak eman	Ikuskari guztiei orientabideen berri eman zaie eta ikasturte amaierako asebetetze galdetegian emaitza 7tik gorakoa izan da. 1.H
	Ikastetxeei, eskola emaitzak azter ditzaten (barne emaitzak, kanpo ebaluazioak, USaP), orientabideak eman	Bide-orria prestatu da eta ikastetxeetan aurkeztu da. 1.H
	Datuen azterketan oinarritutako ekintza-planak egiteko orientabideak eskaini ikastetxeei.	
4. Zuzendaritza taldeen jardun profesionala indartzea, lidergo pedagogikoa sendotuz eta ikuskaritzaren laguntza hobetuz.	2026ko DBH Etapa amaierako ebaluazio diagnostikoan parte hartu, hala badagokio, horren Ebazpenak ezartzen duen arabera.	2026ko DBHko etapa amaierako Ebaluazio Diagnostikoaren Ebazpenak esleitutako funtzioak bete dira, hala badagokio. 3.H
	Ebaluazioaren diseinu berria inplementatzen jarraitu, zuzendarien jardunaren hobekuntza sustatzeko.	Hirugarren urtean dauden zuzendaritza talde guztiak diseinu berriaren arabera ebaluatu dira. 1.O
	Zuzendari berrientzako mentorizazio-sistema aztertu eta indartu ikuskaritzaren laguntzarekin.	Mentorizazioa indartzeko proposamen berria aurkeztu zaio Sailari. 2.H
	Ikuskaritzaren gidaritzapean proiektudun zuzendariekin kontrasteak antolatu	Asebetetze galdetegien kontraste eskuhartzearen balorazioaren batzbestekoa 7tik gorakoa da. 1.O
	Zuzendaritza Proiekturik ez duten ikastetxeetan esku hartu, lidergo pedagogikoa bultzatuz	Ikastetxeen %100ean esku hartu da 1.O

5. Ikastetxeetan elkarbizitza eta ikasleen eskubide eta betebeharren jarraipena egitea ikuskaritza-bisiten bidez.	Ikastetxeei ematen zaien erantzuna hobetzeko eskola-jazarpenaren eta jarrera suiziden aurrean 24-25 ikasturtean hasitako pilotajea beste urte betez luzatu eta zabaldu	Bizkaian falta diren zonetara zabaldu da pilotajea 1.H
	Eskola-jazarpenaren eta jarrera suiziden kasuen kudeaketa errazteko aplikazioa berri bat jarri da martxan.	HIKUren aplikazioa martxan jarri da 1.H
	201/2008 Dekretuaren aplikazioan ikastetxeei lagundu	Dekretuaren eguneraketan eta honen zabalkundean parte hartu da 1.H
6. Curriculuma ikastetxeetan nola inplementatzen ari den ikuskatzea.	Ikastetxeetako programazioak aztertu, begirada ebaluazioan eta metodologietan jarrita	Ikastetxeen %20en programazioak aztertu dira IO
	Enfoke metodologiko berriak ezarri dituzten ikastetxeen jarraipena egin	Matrikula aplikazioan eremuka lan egiteko alta eman duten ikastetxeen jarraipena egin da IO



2025-26 Ikasturteko helburuak	Ekimenak	Lorpen adierazleak
7. Eskola Publikoaren 2025-2028 Plan Estrategikoaren ezarpenean ikastetxeei laguntzea, ikuskaritzaren orientazioaren eta jarraipenaren bidez, bide-orri estrategikoa errealtate bihurtzeko	Ikuskariei Plan Estrategikoaren berri eman eta horren inguruko gogoeta sustatzea planaren garrantziaz jabetzeko	Plana aurkeztu da eta hausnarketarako gunea ireki da. 1.H
	Ikastetxe publikoei 2025-2028 Plan Estrategikoarekiko bere kokapena eta lehentasunezko jardun-arloak zehazten lagundu.	Ikastetxeei 2025-2028 Plan Estrategikoarekiko bere kokapena zehazteko bidean sortzen zaizkien zalantzak argitzen lagundu erantzun bateratu bat emanez. IO



2025-26 Ikasturteko helburuak	Ekimenak	Lorpen adierazleak
8. Pertsonak. Jarduera profesionalaren kalitatea hobetzeko helburuarekin, pertsonen ebaluazio-prozesu integratu bat garatzea	Ikuskaritza-lana eraginkortasunez eta etengabeko hobekuntzarekin garatzeko, LEPa gainditu ondoren praktikan dauden ikuskarientzat eta, orobat, zerbitzu-eginkizunetan daudenentzat ebaluazio-diseinu berria egin Ebaluazio foroan, irakasleen ebaluazioari dagokionean, parte-hartu.	Ikuskarien praktikaldia arautzen duen Ebazpenaren ebaluazio-adierazleak egokitu dira eta hauek erreferente izan dira zerbitzu eginkizunetan dauden ikuskariak ebaluatzeko 1.H Ebaluazio foroak bilera guztietan parte hartu da. 10

5. Kalitate Sistema

Hezkuntza ikuskaritzaren makroprozesuak eta prozesuak

Urteko plan honen helburuak lortzeko jarduera-ildoak eta martxan jarri beharko diren jarduerak deskribatu aurretik, jarduera horiek kudeatzen diren markoaren azalpen labur bat egin behar da.

Hirurteko Plan Orokorrean -misioan, ikuspegian eta balioen markoan adierazitako helburuak lortze aldera orientatzen ditu bere helburuak plan horrek- erabilitako ikuspegitik abiatuta, EAEko Hezkuntza Ikuskaritza, kalitatea kudeatzeko **ISO 9001-2015** sistemaren arabera, ondorengo makroprozesuetan antolatzen da:

- **MP 01.- Estrategia, Planifikazioa eta antolaketa.**
- **MP 02.- Zerbitzuak identifikatu eta ematea.**
- **MP 03.- Giza baliabideen kudeaketa.**
- **MP 04.- Dokumentuen kudeaketa.**
- **MP 05.- Baliabide materialen kudeaketa.**
- **MP 06.- Neurketa, analisia eta hobekuntza.**

Makroprozesu hauek guztiek ematen diote Ikuskaritzaren jarduerari laguntza eta jarduera hori, gehienbat, **MP02 ZERBITZUAK IDENTIFIKATU ETA EMATEA** makroprozesuan jasota geratzen da.

Halaber, **MP02 ZERBITZUAK IDENTIFIKATU ETA EMATEA** lau prozesutan antolatzen da, eta lau prozesu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren egitekoan definitutako alderdiei ematen diete erantzuna.

- **PR0213: Ikastetxeek eman beharreko hezkuntza-erantzuna hobetzen laguntzea.**

Ikastetxeen hezkuntza-ikuskatzearekin, batez ere, lotuta dauden azpiprozesuak sartzen ditu eta ikastetxeen funtzionamendua eta ikasleei ematen dieten hezkuntza-erantzuna, irakaskuntza-funtzioan aritzeko era eta zuzendaritza-funtzioa dira ardatzak. Jarduera horiek eremu horietan dauden premiak eta hobetzeko aukerak identifikatzera, hausnarketa egiteko formazio-prozesuak sortzera eta, ondorioz, balioa emango duten eta irakaskuntzan hobeto aritzeko eta emaitzak hobeak izateko lagungarri izango diren proposamenak egitera bideratuta daude.

- **PR0223: Arau-kontrola/Eskubide eta eginbeharrak bermatzea.**

Hezkuntza komunitateko kide guztien eskubide eta eginbeharrak betetzeko bermeari lotutako azpiprozesuak. Funtsezko erreferentea indarreko legeria izango da. Jarduera horietan, gardentasuna, aukera-berdintasuna eta legeriaren izpirituaren arabekoak izango direla segurtatzea izango du Ikuskaritzaren jarduerak helburu.

– **PR0233: Gatazkak konpontzea. Elkarbizitza.**

Ikastetxeetan elkarbizitza positiborako lagungarri izango diren balio, jarrera eta jarduerak sustatzeari eta hezkuntza-eremua guztiei errespetatuko zaien eta guztiak parte sentituko diren toki seguru baten gisa, fisikoki eta emozionalki, bizitzeko eskubidea bermatzeari lotutako azpiprozesuak dira. Elkarbizitzaren kudeaketari, eta eskola-jazarpenari, lotutako esku-hartzeak, portaerak zuzentzeko prozedurak, bitartekaritza-prozesuak, ikastetxe publikoetako pertsonalaren kontrako erasoak, funtzionario publikoen diziiplina-erregimenaren garapena, berdintasuna eta hezkidetza sustatzeko prozesua, babesgabeziaren kontrako protokoloak gauzatzea, etab... sartzen ditu. Ikuskaritzaren esku-hartzeak gardentasuna, laguntza eta arau-aholkularitza ematen ditu eta, batez ere, gatazkak behar bezala kudeatuko direla bermatzen du, esku-hartze horien emaitza zuzena izan dadin, guztien eskubideak berma ditzan eta elkarrekin bizitzeko gaitasuna garatu eta hobetzeko prozesua susta dezan.

– **PR0243: Programen jarraipena. Sistemaren helburuak.**

Programa espezifikoaren jarraipenari lotutako azpiprozesuak dira; izan ere, Lanbide Heziketako Sailburuordetzatik eta Hezkuntza Politiketako Sailburuordetzatik jartzen dira programa horiek martxan, hezkuntza sistemaren helburuak lortzeko eta horretarako une bakoitzean sustatzen diren ildo estrategikoak aurrera eramateko laguntza eraginkorragoa emateko ikastetxeei. Ikuskaritzaren esku-hartzea programa horien garapena erraztera eta sustatu dituzten helburuak bete diren edo ez baloratzera bideratuta egongo da.

Hezkuntza Ikuskaritzako Kalitate Batzordeak hala proposatuta, 2025-2026 ikasturtean Ikuskaritzak aurrera eramango dituen jarduerak, Azpiprozesuetan eta hainbat Prozeduratan sailkatuko dira. Hauetaz gain, lan taldeak ere antolatu dira. Hona hemen Azpiprozesu eta prozeduren ezaugarriak:

- **Azpiprozesua:** Azpiprozesu batek helburuak, lorpen adierazleak eta ekintza plan bat izango ditu. Urte bukaeran memoria bat egingo da, non urtean zehar egondako gorabeherei buruz hitz egiten den, urteko datuak jasotzen diren eta hobekuntza proposamenak adierazten diren.
- **Prozedura:** Prozedurak, burutu behar diren ekintzak dira. Ekintza hauetatik eratorriko datuak jasotzea baliagarria izan daiteke ikasturteko memoria orokorrerako. Prozeduren kudeaketa, dokumentazioari begira, Azpiprozesuak baino arinagoak direla esan genezake.

V-92ra begira, Prozedurak orain arte identifikatu diren bezala kudeatuko dira, hau da, Azpiprozesuak balira bezala, are gehiago, kodifikazio bera izango dute.

Prozedurak identifikatzeko, desberdintasun bakarra, AZ hizkien aurretik **PROZEDURA** hitza agertuko dela.

Adibidea:

Orain arte: **AZ022050 DAE EJA kontrola**

Aurrerantzean: **PROZEDURA AZ022050 DAE EJA kontrola**

Aurreko guztiaz gain, 2025-2026 ikasturteren lehen hiruhilekoan Euskaliteko Kudeaketa Aurreratuaren ereduaren aurrera egiteko gogoeta egingo da Kalitate Batzordetik.

Hona hemen, 2025-2026 ikasturtera begira, **giltzarriak diren AZk eta lan-taldeak**:

Lehentasunezkoak		
1. Curriculum eta ebaluazioa. Emaizak hobetzeko estrategia. 2. Ikastetxeetako lidergoa. Lidergo pedagogikoa. 3. Ikasleen ongizatea. Eskola jazarpena eta joera suizidak. Pilotajearen zabalkundea. 4. Pertsonak. Identitate profesionalak. Irakasleen profila / Ikuskarrien harrera eta tutoretza / Ikuskarrien ebaluazioa		
Bestelakoak		
1. Dokumentazio akademikoa eta eskola emaitzak 2. Eskola egutegiak eta ordutegiak 3. Irakasleen titulazioak 4. Ikasleen absentismoa 5. Praktiketako funtzionarioen ebaluazioa 6. Irakaskuntzarako gaitasunaren ebaluazioa eta diziplina espedienteak 7. Ikuskarriaren koaderno eta ikastetxeen datu bilketa 8. Enplegatu publikoen diziplina-araubidea 9. Euskara salbuespenak 10. DAE EJA kontrola 11. NCE eta curriculum malgutzeko neurriak	12. Eskariak / Jakinarazpenak* 13. Kalifikazioen aurkako erreklamazioak* 14. Ikasleen jokabideak zuzentzeko prozedurak* 15. Ikasleen eta langileen grebak* 16. Eskolatzeko Programa Osagarriak* 17. Etxean eman beharreko hezkuntza-arreta* 18. Zuzendaritza taldeen izendapena*	19. Koaderno digitala** 20. Irakasleen atxikipenak** 21. Batxilergoko sari bereziak** 22. Eskolatze batzordeak** 23. Lekualdatze-lehiaketaren baremazioa** 24. Unibertsitatara sartzeko ebaluazio-proba** 25. Eraldatzen** 26. Hedatze** 27. Euskal Eskola Publikoa eraldatzeko I. plan estrategikoa (25-28)** 28. Segregazioari aurre egiteko ituna** 29. Ebaluazio foroa** 30. Ikastetxe publikoetako langileei egindako eraso kasuak** 31. Elkarriketa laguntzaileak** 32. Jazarpen-aginduan oinarritutako bitartekaritza** 33. Lanpostuaren profilera egokitzeari buruzko ebaluazioa** 34. Irakasleen absentismoa**
Lantalde eta Batzordeak		
1. Lanbide heziketako batzordea 2. Kalitate batzordea 3. Eguneratze normatiborako batzordea (Lex) 4. Berrikuntzaren zaintza batzordea 5. Euskararen erabilera batzordea	6. Berdintasun planaren batzordea 7. Kanpo ekimena batzordea 8. V92 aplikazioa Hezkuntza Ikuskaritza 9. Digitalizazio batzordea 10. Irakasleen profila	

* prozedurak dira, jarduerarako dokumentazioa prest dute baina ez dute lan talde aktiborik

** kolaborazio prozedurak dira, saileko beste zerbitzu batzuekin lantzen dira eta behar berezi bati erantzuten diote

Gainera, **MP-01**, **MP-03** eta **MP-06** makroprozesuen markoan ondorengo jarduerak egiten dira:

MP-01.- ESTRATEGIA, PLANIFIKAZIOA ETA ANTOLAKETA

Hezkuntza Ikuskaritzak, kalitateari buruzko politikan xedatutakoa kontuan hartuta, nahi dituen helburuak lortzera bideratzea zerbitzua emateko eta agiriak eta kalitatea kudeatzeko sistemaren baliabideak kudeatzeko prozesuak

MP-03.- GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA:

Pertsonen gaitasun profesionalak hobetzeko jarduerak eta ezagutza ez galtzeko eta inplikazioa, partehartzea eta kide sentitzearen sentimendua areagotzeko estrategiak jasotzen ditu.

Era berean, Ikuskaritzako kide berriei tutoretza emateko eredua sustatzen duen taldearen lana ere jasotzen da, Horretaz gain, ikuskarien profil konpententzialaren berrikuspena; ebaluazio-prozesuak; eta Ikuskaritzaren formazio-plana moduko ekimenak biltzen ditu.

MP-06.- NEURKETA, ANALISIA ETA HOBEKUNTZA:

Kalitatea kudeatzeko Hezkuntza Ikuskaritzaren sistema neurtu, berorren jarraipena egin eta aztertzeko aukera ematen duten mekanismoak zehaztea, aurrera eramaten diren jarduerak eta prozesuak eraginkortasunez egin ahal izateko moduko hobekuntza-bideak zehazteko asmoz.

Prozesu eta makroprozesu horietan jasotako jardueraz gain, Ikuskaritzak hezkuntza-administrazioarekiko lankidetzajarduerak askotan parte hartzen du. Lankidetzak puntual edo sistematikoko eskaerei erantzuten dieten jarduerak dira. Aurreikusi gabeko edo hainbat arrazoiengatik garrantzi berezia hartu duten egoerei lotutako premiazko edo oso garrantzizko gaiei buruzko txostenak egitea barne hartzen dute hainbatetan. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Beste zerbitzu batzuek sustatutako formazio-jardunaldietan laguntzea.
- Lan Eskaintza Publikoetan parte-hartzea.
- Herritarrek Hezkuntza Sailari egiten dizkioten kontsultei erantzunak prestatzea.
- Beste erakundeek planteatutako gaiei buruzko txostenak (Arartekoa, Fiskaltza, Legebiltzarra...).
- Sailaren programak diseinatzen eta sustatzen parte hartzea.
- Sailaren ordezkaritza zenbait forotan.

6. 2025-2026 Ikasturteko ekimenak

6.1. Ekimen giltzarriak 2025-2026 ikasturtean

2025-2026 ikasturterako ikuskaritzaren jarduera-giltzarriak finkatzeko garaian, irizpide hauek hartu dira kontuan:

- Testuinguru-alderdi esanguratsuenak.
- Hiru urteko eta urteko planaren helburuekin lotura.
- Gure esku-hartzeak ikastetxeetan duen inpaktua.
- Gizartearen eskaerak eta eragina.
- Hezkuntza Sailaren helburuak eta eskaerak.

Aurrekoa kontuan harturik, hauek dira 2025-2026 ikasturteko ekimen-giltzarriak:

- a. Curriculumuma eta ebaluazioa. Emaizak hobetzeko estrategia
- b. Ikastetxeetako lidergoa
- c. Ikasleen ongizatea
- d. Pertsonak. Identitate profesionala

6.2. 2025-2026 ikasturteko ekimenen zehaztapena:

a. Curriculumuma eta ebaluazioa. Emaizak hobetzeko estrategia

Hezkuntza Emaizak Hobetzeko 2024-2028 Estrategia Integralaren baitan, ikuskaritzaren esku-hartzeak aparteko garrantzia hartzen du curriculumaren garapena eta ebaluazioaren erabilera pedagogikoa hobetzeko.

Zutabe estrategikoetako bat da ebaluazio-sistema integrala, hobekuntza pedagogikorako, erabaki informatuak hartzeko eta ekitatea sustatzeko tresna gisa ulertuta. Ikuskaritzak zutabe hori garatzeko funtsezko lana du, ebaluazioa tresna eraginkor, erabilgarri eta esanguratsuago bihurtzeko hezkuntza-komunitate osoarentzat, batez ere ikasleentzat. Datuak biltzetik harago doan estrategia, ikasleen ikaskuntza-prozesua hobetzera zuzendutako jarduna sustatzea helburu duena.

Ikuskaritzaren lana ikastetxeen praktika eta antolakuntza pedagogikoan zentratuko da. Ikuskariek egiaztatuko dute ikastetxeek bere plan estrategikoak datuetan oinarrituta osatu dituztela, eta hobekuntza-helburuak argi definituta dituztela, bereziki oinarritzko konpetentzietan (matematika, irakurketa eta zientziak). Ikastetxeek eguneroko irakaskuntza-jarduera eta ebaluazio-praktikak berrikusten dituzten aztertuko da, ikasleen errendimenduaren hobekuntza bilatuz.

Curriculumaren ikuspegitik, ikuskaritzak egiaztatuko du ikastetxeetan irakurketaren sistematizazioa arlo guztietan integratzen ari ote den, eta irakurketarako, matematikarako eta zientzietarako metodologia aktiboen erabilera zabaltzen ari ote den. Halaber, ikuskatuko dira ikasleen jarraipen pertsonalizatua bermatzeko ebaluazio-tresnak egoki erabiltzen ote diren.

Testuinguru horretan, Ikastetxeko zuzendaritza-taldeek eta BeA figurak funtsezko rola dute ikastetxearen barne-hobekuntza dinamizatzaile gisa. Ikuskaritzak horien jarduna gainbegiratu

du: lidergo pedagogikoa, prestakuntza antolatze gaitasuna eta estrategia koherenteen garapena. Halaber, OBK (ongizateko eta babeseko koordinatzaileek) eta BAT taldeek bizikidetza positiboa eta ingurune seguruak bultzatzean duten eragina ere kontuan hartuko da.

Beste alderdi nagusi bat da ikasleen laguntza pertsonalizatua eta tutoretza indartzea. Irakasle tutoreek datuen erabilera egokia egiten duten aztertuko da, ikasleen beharretara egokitutako neurriak hartzeko. Honekin batera, familiarekiko komunikazioa, elkarrekintza eta parte-hartzea ere aztergai izango dira.

Era berean, ikuskaritzak programa estrategiko nagusien —hala nola Hedatze, He-indartuz, Eraldatzen, Bidelaguna, Indartuz...-, jarraipena egingo du. Hortik abiatuta, hobekuntza proposamenak egingo dira.

Guztiarekin, ikuskaritzaren jarduerak bi helburu ditu:

- Ikasleen ikaskuntza eta emaitzak hobetzen laguntzea.
- Ikastetxeen curriculum- eta ebaluazio-praktikak berrikustea.

Horretarako, ikuskaritzak ebidentzietan oinarritutako azterketa-prozesuak eta hausnarketa pedagogikoa bultzatuko ditu. Horrela, ebaluazioa eta curriculum-garapena ez dira soilik arauzko betekizunak izango, baizik eta hobekuntza esanguratsurako palanka nagusiak, ikasleen arrakasta pertsonal eta akademikoaren zerbitzura.

Emaitzen Hobekuntza Estrategia hezkuntza ikuskaritzaren urteko plan honetan integratzeko, honako pausoak eta ikuspegiak kontuan hartzea gomendatzen da:

1. Diagnostikoaren erabilera sistematikoa

- Ikuskaritzak barne eta kanpo emaitzak aztertu behar ditu ikastetxe bakoitzean, ikaste- eta irakaste- prozesuetako arazoak identifikatzeko.
- Ikastetxeek diagnostiko horretan oinarritutako hobekuntza-planak garatzen dituztela ziurtatu

2. Ardatz estrategikoen jarraipena

- Estrategiaren ardatzen lanketa (irakurmena, matematika, zientziak, bizikidetza...) ikastetxeek euren dokumentu estrategikoetan txertatu dituztela monitorizatu.

3. Irakasleen prestakuntza eta lidergo pedagogikoa

- Ikuskaritzak irakasleen prestakuntza-plana ikastetxeek dituzten beharrekin koherentea dela gainbegiratu eta aholkuak eman.

Esku-hartzearen diseinua eta informazio bilketa Curriculum eta Ebaluazio lan-taldeak egingo ditu, ikuskaritzaren urteko plan honen II eranskinean zehaztutakoa aintzat.

b. Ikastetxeetako lidergoa.

Ikastetxeen arrakastarako funtsezko elementuetako bat zuzendaritza-taldeek lidergoa eta egonkortasuna da. Talde hauek, ikastetxearen funtzionamendua, bizikidetzaren eta erantzun pedagogikoa modu koordinatu batean gidatzen duten heinean, beren jarduna estrategikoki bideratuta egon behar da, hezkuntza komunitatearen kohesioa eta ikasleen ikaskuntza hobetzeko helburuarekin.

Zuzendaritza-taldeek, beraz, lankidetzaren aldeko kultura sustatu behar dute, irisgarritasuna eta komunikazio eraginkorra bermatuz. Lidergo eraginkorra harreman sendoetan, gogoetan, arriskuak hartzeko prestutasunean eta gardentasunez hartutako erabakietan oinarritzen da. Aldi berean, eskola-lidergoa ez da banakako ekintza; ikastetxearen misioarekin, helburu estrategikoekin eta ikastetxeko eguneroko kulturarekin lotuta dago.

Lidergoak eragin zuzena du ikastetxearen giro orokorrean, irakasleen jarreraren eta motibazioan, baita jardunbide pedagogikoen kalitatean ere. Ikaskuntza-irakaskuntza prozesua nola antolatzen den, irakasleek ikasgelan dituzten praktikak, eta ikasleek ikasteko dituzten aukerak zuzenean baldintzatzen ditu zuzendaritzaren jardunak.

Zuzendaritza-taldeek, beraz, testuinguru egokiak sortu behar dituzte irakasleek beren praktika pedagogikoa garatzeko eta hobetzeko. Beren zeregin nagusietako bat da ikastetxearen antolamendua eta lidergo pedagogikoa uztartzea, erronka partekatuak identifikatuz eta irtenbide kolektiboak eraikiz.

Horregatik, aurreko ikasturteetan hasitako norabidea indartuz, ikuskaritzak zuzendaritza-taldeei laguntza zuzena emango die 2025-2026 ikasturtean ere, formazioan parte hartuz eta laguntza eskainiz.

Zuzendaritzaren lana bikaintasunerantz orientatuko da, eta horretarako konpetentzietan oinarrituko gara. Konpetentzia profesionalak garatzeko helburu argiak adieraziko dira une oro, eta lanaren ebaluazio eta jarraipena egingo da, hobekuntza proposamenak eskainiz.

Lidergoak motibazioan, taldearen inplikazioan eta, azken finean, ikastetxearen kalitate osoan eragina du. Horregatik, ikuskaritzaren esku-hartzeak elkarlan-giroa sustatuko du zuzendaritza-taldeekin, beren jarduna indartzeko.

Gainera, proiekturik gabeko ikastetxeetan esku-hartze espezifikoak egingo dira, egoera horien zergatiak aztertze eta zuzendaritza-talde egonkor eta eraginkor baten beharra azaleratzeko. Jarduera horren bidez, ikuskaritzak zuzendaritza-proiektuen faltaren atzean dauden faktoreak aztertuko ditu, eta horien aurrean orientazioa eta aholkularitza emango du.

Ikasturte honetarako aurreikusitako jardura nagusiak honako hauek izango dira:

- Zuzendaritza funtzioaren ebaluazioaren diseinu berria ezarriko da zuzendaritza-aldiko 1. 2. eta 3. urtean dauden taldeekin.
- Ebaluazio tresnak eta prozesuak garatzen eta dokumentatzen jarraitu.
- Marko teoriko bat diseinatu.

Azken batean, ikuskaritzaren helburua da zuzendaritza-taldeen lidergo eraginkorra eta profesionala indartzea, ikastetxeen garapen estrategikoa, pedagogikoa eta antolakuntzazkoa sustatzeko. Lidergo sendoek ikasleen ikaskuntza-esperientzia hobetzen dute, eta horretan oinarrituta, kalitatezko hezkuntza-sistema bat eraikitzen da.

c. Ikasleen ongizatea

Azken urteotan, ikuskaritzaren esku-hartze eremuen artean lehentasunezko bat izan da ikastetxeetako bizikidetza positiboaren zaintza eta garapena. Gure jardunak ez luke soilik erantzun erreaktiboetan oinarritu behar. Ikuskaritzaren esku-hartzeak prebentzioaren, zaintzaren eta kultura positiboaren alde egin beharko luke.

Ikasleen ongizatea helburu nagusitzat hartuta, ikastetxeek giro seguru, inklusibo eta hezitzailea bermatu behar dute, non komunitate osoa —eta bereziki ikasleak— protagonista aktibo izango diren elkarbizitza jasangarri baten eraikuntzan.

2025-2028 Hobekuntza Estrategiaren hirugarren zutabeak eta Euskal Eskola Publikoaren Plan Estrategikoaren 7. ardatzak testuinguru egokia eskaintzen dute ikuskaritzaren esku-hartzea kokatzeko. Ardatz horren lehentasunezko helburua da bizikidetza positiboa, hezkidetza eta ongizate sozioemozionala sustatzea, ikuspegi komunitario, leheneratzaile eta inklusibo batetik.

Hori dela eta, aurreko iazko ikasturtean hasitako pilotajeari eutsiko diogu. Talde horretako ikuskariek zonako arduradun gisa jardungo dute, bizikidetzaren eta ikasleen ongizatearen esparruan esku-hartze koordinatua eta espezializatua bermatzeko.

Ikuskaritzaren esku-hartzeak honako jardura hauek barne hartuko ditu:

- Bizikasi ereduari erreparatuz, elkarbizitza positiboaren sustapenean ikastetxeei laguntza eskainiko zaie.
- Elkarbizitza taldeak jazarpen kasuen kudeaketa egingo du, aurreko ikasturteetan jarraipen-egoeran geratu ziren kasuak aintzat hartuz eta ikastetxeetako protokoloen aplikazioa eta eraginkortasuna berrikusteko.
- Elkarbizitza taldeak jokabide suiziden aurrean ikastetxeek burutu beharreko jardura-protokoloen gainbegiratzea eta jarraipena egingo du.

d. Pertsonak. Identitate profesionalak

Ikuskarrien lanbide-profila funtsezkoa da gure jardunaren norabidea eta kalitatea zehazteko, eta hezkuntza-sistemaren helburuekin koherentea izateko. Gaur egungo testuinguruan, profil honek ikuskariegarri esperatu diren konpetentzia profesionalak jasotzen ditu, eta erreferente argia eskaintzen du bai jardun profesionalerako bai ebaluazio-prozesuetarako. Berezik, ikasturte honetan diseinatu dugun ikuskarrien ebaluaziorako eredua profil horretan oinarritzen da, ikuskarrien jardunaren kalitatea eta eraginkortasuna sustatzeko helburuarekin.

Diseinu berri hau bereziki aplikatuko zaie praktiketan dauden ikuskariei eta zerbitzu-eginkizunetan daudenei, haien jarduna garatzeko, finkatzeko, ebaluatzeko eta egiaztatzeko helburuekin. Ebaluazio-prozesuak, gainera, tresna izango dira hausnarketarako, hobekuntzarako eta

profesionaltasunerako, ikuskaritzaren jardunaren etengabeko egokitzapena eta koherentzia bultzatzeko.

Profil horrek aukera ematen du ikuskariek modu koherentean lan egiteko, ikuspegi bateratuak eta jardun-irizpide argiak garatuz. Halaber, ikuskaritza-antolakuntzari esparru sendo bat eskaintzen dio etengabeko prestakuntza, garapen profesionala eta ebaluazioa uztartzeko. Profil dinamiko eta eguneratu batek bermatzen du ikuskariek gizarte- eta hezkuntza-erronka berrietara egokitzeko gaitasuna dutela.

Horren baitan, gure egitekoak izango dira:

- Diseinu berria oinarri hartuta, ikuskarien ebaluazio-prozesua praktikan jarri eta gainbegiratu, prozesuaren jarraipena eta etengabeko hobekuntza bermatuz.
- Prestakuntza estrategikoa planifikatzea eta garatzea, ikuskariek egungo erronka profesional eta teknologikoei aurre egin ahal izateko. Horretarako, prestakuntza-eskaintza espezifiko eta eguneratua sustatuko da, profil profesionalean oinarrituta eta ikuskaritzaren lehentasunezko lan-ardatzekin lotuta.
- Ikuskaritzan diharduten administrariaren lana indartu, lurralde osoan ikuskaritzaren ekintza kohesionatua bermatzeko, formazioa eta koordinazioa bultzatuz.

7. Euskalduntzea eta euskararen normalkuntza

Hezkuntza Ikuskaritzaren helburu estrategikoen artean dago euskararen erabilera sustatzea eta hobetzea, bai barne-komunikazioetan, bai ikastetxeekiko harremanetan. 2025-2026 ikasturtean, bereziki honako hauei erreparatuko zaie:

Euskararen erabilera sustatzea:

Euskararen erabilera aktiboki sustatuko da ikuskaritzaren barneko komunikazioetan (bilera, txosten, idazki eta informazio barnekoetan), baita hezkuntza komunitateko kideekin — zuzendaritzak, irakasleak eta gainerako eragileak— izandako harremanetan ere. Helburua da euskara lan-hizkuntza arrunta eta naturala bihurtzea eguneroko jardunean.

Komunikazioen kalitatea eta kopurua hobetzea:

Ikuskaritzak bere gain hartuko du euskarazko komunikazioen kopurua eta kalitatea etengabe hobetzeko konpromisoa. Helburu zehatz gisa ezarriko da epe jakin batean euskaraz egiten diren dokumentuen eta komunikazioen portzentajea handitzea. Aldi berean, kalitatearen aldetik, euskara zuzen, ulergarri eta egokian erabiltzeari garrantzi berezia emango zaio, estilo eta erregistro administratiboan koherentzia eta argitasuna bilatuz.

Prestakuntza sustatzea:

Euskararen erabilera egokia sendotzeko asmoz, prestakuntza planak berariazko atal bat izango du. Formazio honekin ahozko eta idatzizko komunikazio eraginkorra lantzeko konpetentziak indartuko dira.

8. Ikuskaritzaren formazioa. Formazio plan integrala. Gogoeta eta ekintza.

Eskaintzen dugun zerbitzuaren hobekuntza, Hezkuntza Ikuskaritzaren etengabeko erronka izan da betidanik. Gizartearen eskakizun berrietara egokitzeko, eta, ahal den guztietan, aurre hartzeko gaitasuna duen Ikuskaritza bat nahi dugu. Estrategia garbi bat edukiz eta lorgarriak eta bideragarriak izango diren helburuak ezarriz; geldirik ez dagoen erakunde bat gara.

88 kideez osaturiko erakunde honetan, partekatutako lidergo bat eraikitzeak oinarri behar du izan. Irakaskuntzan aldaketarako eta hobekuntzarako bektorea izan nahi badugu, lider pedagogikoak ere izan behar dugu, irakasleei laguntzeko eta aholkularitza kualifikatua emateko. Hezkuntzako ikuskariek lehentasuna eman behar diete ikastetxeetan egiten dituzten jardueri, modu horretan bakarrik lagunduko baitzaie aldaketei, jardunbide egokiak sustatuz eta bultzatuz konfiantzazko eta autogogoetako giroan. Horretarako, ikuskariek konpetentzia profesional egokiak garatu behar dituzte, ezagutza teknikoak eta teorikoak modu orekatu eta egokian uztartuz. Konpetentzia profesional horiek ardatz eta erreferente izango dira formazio plan hau diseinatzeko garaian.

Orobat, bistan da, Hezkuntza Ikuskaritza ezin dela ikastetxeetako bizikidetzaren ingurunetik urrun egon. Pertsonen arteko harremanak, harreman sozialak eta profesionalak nahasten diren esparru delikatu eta funtsezko horri lagundu behar dio.

Ingurumaria honetan, hezkuntzako ikuskarien konpetentziak garatzea ezinbestekoa da, besteak beste, erresilientzia eta enpatia sustatuz. Eta, jakina, hau guztia lortu ahal izateko etengabeko formazio ezinbesteko dela irizten diogu, ikuskarion eginkizunak eta jardunak garatzen lagunduko duena, espezifikotasun- eta kualifikazio-baldintza batzuen pean.

Horrenbestez, 2025-2026 urteko Formazio Plana oinarrituta dago, besteak beste, 2023-2026 hiru urteko planaren helburuetan. Hau horrela, Ikuskaritzaren formazio eta haren jardunaren ebaluazio-prozesuak ezinbestekoak dira jardueren garapen eraginkorra eta etengabeko hobekuntza lortze aldera.

2025-2026 ikasturteko formazio-planak urteko plan honetan proposatutako helburuak lortzen lagundu behar du, Hezkuntza Ikuskaritzaren eremu estrategikoak eta ekimen giltzarriak aintzakotzat hartuta.

Formazio eraginkorra lortu ahal izateko, Ikuskaritza-plantillaren behar profesionalak kontuan hartu behar dira. Gauzak horrela, erantsitako Formazio Plan Integralean jasotzen da bide-orria (Ikus III. eranskina).

Orobat, lan-talde (AZ, Batzordeak, etab.) bakoitzak, beharren arabera, jorratzen duen gaiaren inguruko barne-formazioa sustatuko du eta, egokia irizten duenean, plantillan zabalduko da.

Gainera, gure praktikari buruzko hausnarketarako eta guztion arteko ezagutza eraikitzeko bultzatuko dira, ikuskarion interesei erantzun nahian.

Bestalde, azkeneko urteotan gertatzen ari den ikuskarien aldaketa dela eta, pertsonak elkar ezagutze aldera, lurralde arteko formazio saioak ere bultzatuko dira, toki desberdinetako ikuskariei

elkarguneak sortarazteko eta Hezkuntza Ikuskaritzaren kide izatearen sentimendua areagotze aldera.

Nazioarte zein estatu mailako topaketak, irakaskuntzaren eta ikuskaritzaren eraginkortasunari buruzko ikerketa berrietan oinarritutako formazio jarduerak ere bultzatuko dira.

Horretaz gain, jakintzaren transferentzia ziurtatzeko moduak bilatzeari lehentasuna emango zaio. Gure zerbitzuan azkeneko urte hauetan plantilla aldatzen ari da etengabe, Hezkuntza ikuskarien jubilazio ugari suertatzen ari direlako.

Hortaz, III. eranskinean, ikasturte osorako plantillarentzat formazio plan integrala aurkezten da.

Orobat, urteko plan honetan sortutako beharrei erantzuteko aurkezten den formazio planaz gain, noizbehinka, ikasturtean zehar ikuskarientzat interesekoak izan daitezkeen bestelako formazio saioak egon daitezke. Guztiarekin, hona hemen 2025-2026 ikasturtean sor daitezkeen formazio saio horietara joan ahal izateko baldintzak:

- IKUP honetako helburuekin bat egitea.
- Zerbitzuaren beharrianetara egokitua egongo da. Horrenbestez, formazio saio berara doan ikuskarien kopuruak Lurraldeka ez du %15a gaindituko. Betiere, bermatuko da une horretan aktibo dauden ikuskarien %85a zerbitzuan egotea.
- Ikuskariaren eskaera idatzia jaso ondoren, ikuskari nagusiak emandako baimena izatea.
- Ikuskariak bere kabuz eskatutako baimena denean, bost egun edo saio izango dira gehienez ikasturte bakoitzean eta ez da kalte-ordainik jasoko.
- Baimena jaso ahal izateko aipatutako baldintza guztiak bete beharko dira.

9. Ikuskaritza-funtzioaren ebaluazioa

Ikuskaritzaren funtzioaren ebaluaziorako Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretua da gure marko orokorra eta eredutzat hartzen dugu.

Ikuskariaren eginkizunetarako konpetentziak oinarri hartuta, ikuskarion profila eguneratua dugu. Guztiarekin, konpetentzia-profilaren bertsio berri hori kontuan hartuta ebaluatuko dira aurtengo ikasturtean praktiketan dauden ikuskariak eta zerbitzu-eginkizunetan daudenak.

Ikuskarien autoebaluazio eta ebaluaziorako prozesu hauek direla medio, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzako zerbitzuari hobekuntzak ekarriko dizkio bai ikuskariaren banakako konpetentziei begira baita erakundeari ere.

Alde batetik, 98/2016 Dekretuak zehazten duen bezala, zerbitzu eginkizunetan dauden ikuskariei lanaldia luzatze aldera, ebaluazio positiboa behar izango dute. Hortaz, egoera horretan dauden ikuskariak ebaluatuko dira eta horretarako, txosten eredu berritua hartuko da aintzat aipatutako konpetentzia matrize berria oinarri hartuta.

Bestetik, ikuskaritzaren plantillaren ebaluazioari dagokionez, konpetentzia matrize berri hau oinarria izango da etorkizunean ebaluazioa egingo balitz. Horren helburua da definitzea erakundearen alde sendoak eta baita hobetzeko esparruak ere.

10. Lurraldeetako urteko plan orokorra zehaztea

Hezkuntza ikuskaritzaren urteko plana Lurralde bakoitzean zehaztuko da. Planaren Lurraldeetako zehaztapenak Hezkuntzako Ikuskari Nagusiak onetsiko ditu. Eranskin bezala planteatu behar da.

Zona bakoitzeko ikuskaritza-taldeak antolatuko ditu ikasturte bakoitzeko jarduerak, Ikuskari Nagusiak ezarritako urteko planaren arabera eta Ikuskaritzako lurralde-buruak egindako Planaren Lurraldeko zehaztapenaren arabera.

11. 2025-2026 Urteko planaren ebaluazioa eta eguneratzea

Urteko Plan honen betetze-mailaren ebaluazioa Lurralde Arteko Batzordeak egingo du, bai eta Lurralde Burutzek ere, zonako burutzen koordinazio-bileretan eta zonako lantaldeen bileretan.

Gainera, ikasturtean zehar, Ikuskatze Batzordeak (Ikuskaritza Nagusia, lurralde-buruak eta zonako buruak) ikuskariekin egindako iritzi jasoketaren emaitzak aztertuko ditu.

2025-2026 ikasturtea amaitzean, Urteko Plan hau ebaluatuko da, honako hauek kontuan hartuta:

- Lurralde arteko batzordeak ikasturtean egindako jarraipenaren ondorioak, Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio orokorra eta Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren eraginkortasunari buruzkoa.
- 2025-2026ko formazioen emaitzak, inpaktua neurtzeari dagokionez.
- Proposatutako helburuen lorpen-mailaren jarraipenetik lortutako datuak.
- Auditoretzen (barrukoak eta kanpokoak) emaitzak.
- Azpiprozesuetako eta lan-batzordeetako taldeek egindako memorien emaitzak, egindako lanari eta lortutako emaitzei dagokienez.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barneko eta kanpoko hartzaileen gogobetetzea neurtzearen azterketa.
- Hezkuntzako Ikuskaritzak eskaintzen dituen zerbitzuen hartzaileen iradokizunak, kexak eta erreklamazioak.

Ikasturteko kontrol panelean lehenetsiko dira lorpen adierazle nagusiak.

Urteko Plan honen ebaluazioa Ikuskaritza Zentralak egindako Sistemaren Berrikuspenari buruzko Txostenean (Memoria) jasoko da.

12. Urteko planaren egokitzapenak

I. **eranskinean**, urteko planaren aldaketa posibleak -Batzorde berriak sortzea, helbururen bat betetzeko edo jarduera jakin batzuk egiteko ezintasunaren aurreikuspena, aurreikusi gabeko

ekintza berriak,...- eta ikaskuntza- eta hobekuntza-mugarriak (egiten diren aurrerapenak eta lorpenak) jasotzeko gune bat aurkezten da.

I. Eranskina: Urteko planaren egokitzapenak

Urteko Planaren egokitzapenak

Ikaskuntza, berrikuntza eta hobekuntza

Eranskin honek irekita uzten du espazio bat, plan hau garatzen den heinean betetzen joango dena. Bertan, eman ahala, hasierako plangintzan egin beharreko aldaketa guztiak sartuko dira, testuinguruaren inguruabarretara, sortzen diren premietara eta lortzen diren emaitzetara egokitzeko.

II. Eranskina: lan taldeen antolaketa

Lan taldeen antolaketa

Planaren Lurraldeetako zehaztapenean une jakin batzuetarako, lantalde gutxi batzuetan, ikuskari laguntzaileak izendatzeko aukera izango du Lurraldeburuak

Ikastetxeak hobetzen laguntzea

Azpiprozesua	Egiteko aldia	Aplikazio eremua	Ikuskaritza zentrala	Lurralde arteko Taldea *Trakzio arduraduna	Lurraldeko Taldea	Egitekoak
AZ021320 ZUZENDARITZA FUNTZIOAREN EBALUAZIOA AZ021359 ZUZENDARIAK HAUTATZEA	Ikasturte osoa	Proiektudun zuzendaritzak	Arrate Oianguren	M. Jauregui A. Baraiaetxaburu* N. Uriguena G. Elu	Hautaketa (H) eta kontrastea (K) A. Baraiaetxaburu M. Morras N. Uriguena G. Arroyo U. Zorrozueta I. Markaida L. San Jose G. Elu E. Bidegain A. Mendizabal	Zuzendariei mentorizazioa eskaini. Ikastetxeetan kanpo kontrastea egin eta proiektu onak identifikatu eta hauen ezaugarriak zuzendarien eta ikuskarien artean partekatu. Zuzendaritza proiektua aurkezteko formazioan parte hartu. Zuzendaritza taldeko kideen izendapena kudeatu. Hautaketa aginduan laguntza eskaini.
AZ021360 ZUZENDARITZA TALDEEN IZENDAPENA*	Ikasturte osoa	Ikastetxe Publikoetako Zuzendaritzak	Arrate Oianguren	C. Seco* J. Bollar L. Urraca		V_92an izendapenen mantenua egin.

AZ021371 CURRICULUMA ETA EBALUAZIOA	Ikasturte osoa	Ikastetxe guztiak (lagin bat)	Arrate Oianguren Nekane Zabaleta	A. Jaio Z. Isuskiza R. Martinez M. Castillo* A. Mendiola G. Puyadena		Emaitzak hobetzeko estrategiaren baitan, ikastetxeetan egingo den. Esku-hartzearen diseinua eta informazio bilketa prestatu. Ikastetxeetan egiten duten ikasleen barne eta kanpo ebaluazioen emaitzen inguruko gogoetan parte hartu. Ebaluazio hezitzailearen ereduaren implementazioa Ikastetxeen %20ean jarraitu eta erregistratu. Beste zerbitzuekin koordinazio bilerak egin eta martxan jartzen diren ekimenetan parte hartu.
AZ021313 PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOEN EBALUAZIOA eta LEP	Ikasturte osoa	Ikastetxe publikoak	Nekane Zabaleta	M. Lizartza Alicia Epelde* Mikel Amezaga		Praktikaldian dauden irakakasleen kudeaketa. LEP
AZ023012 IRAKASKUNTZARAK O GAITASUNAREN EBALUAZIOA (IRAKASTEKO KONPETENTZIA) AZ023095 ENPLEGATU PUBLIKOEN DIZIPLINA- ARAUBIDEA	Ikasturte osoa Eskarien arabera	Eskari guztiak	Nekane Zabaleta	M. Miguel* A. Mendiola J. Nuñez J. Jimenez		Dokumentazioaren berrikuspena eta kasu bietarako gida bat sortzea.

PROZEDURA DOKUMENTAZIO AKADEMIKOA	3. hiruhilabetea	Ikastetxe guztiak	Nekane Zabaleta	X. Mendoza* I. Olaskoaga S. Celaya		Dokumentazio akademikoa argitara eman, eta hala badagokio, jarraibideak atera.
PROZEDURA LANPOSTUAREN PROFILERA EGOKITZEARI BURUZKO EBALUAZIOA**	Ikasturte osoa Eskarien arabera	Eskari guztiak	A. Bustinza			Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.

Eskubide eta betebeharren bermea-arauen kontrola

Azpiprozesua	Egiteko aldia	Aplikazio eremua	Ikuskaritza zentrala	Lurralde arteko Taldea	Lurraldeko Taldea	Ekimenak
AZ022386 IKASLEEN ABSENTISMOA	Ikasturte osoa	Derrigorrezko hezkuntzako ikastetxe guztiak	Nekane Zabaleta	P. Tomas I. Lasso* M. J. Fernandez Marga Ruiz		Erreferentziako ikuskariaren kudeaketa berraztertu. Absentismoaren kontrola eta jarraipena. Kanpoko eragileekin (fiskaltza, udalak...) koordinatu.
PROZEDURA AZ022301 ESKARIAK / JAKINARAZPENAK*	Ikasturte osoa	Ikastetxe guztiak eta eskariak	Xabier Balerdi	B. Cabria M. Mejjide M. Jauregui	Zona-buruak Jefes/as de zona	Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.

PROZEDURA AZ022383 EUSKARA SALBUESPENAK	1. hiruhilabetea	Eskari guztiak	Ainhoa Bustinza	Maite Ruiz G. Egaña* A. Mendizabal	M. Morras / Inma Pardo/ M. Uribarren/ A. Epelde P. Bidarte /A. Lertxundi/K. Lekunberri/ C. Bedoya/ B. Kortabarria/ M. Etxebarria/ A. Larrea Ana B. Martin	Eskabideak kudeatzea.
PROZEDURA AZ022382 KALIFIKAZIOEN ETA IGAROTZEAREN AURKAKO ERREKLAMAZIOAK*	Ikasturte osoa	Ikastetxe guztiak	Arrate Oianguren	M. Jauregi B. Cabria M. Meijide		Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.
PROZEDURA AZ022050 EJA KONTROLA	Urtean zehar	Ikastetxe guztiak	Nekane Zabaleta	I. Cia R. Saez de Cortazar* A. Egiraun		EJA hobetzeko proposamenak egin. Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.
PROZEDURA AZ022355 ESKOLA EGUTEGIAK ETA ORDUTEGIAK	2. eta 3. Hiruhilabetea	Ikastetxe guztiak	Nekane Zabaleta	M. Etxebarria C. Seco* X. Mendoza		Prozeduraren arabera jardun.
PROZEDURA AZ022073 NCE ETA CURRICULUMA MALGUTZEKO NEURRIAK	1. hiruhilekoa	Proposamen guztiak	Arrate Oianguren	M. Miguel/ G. Arroyo A. Agudo A. Ximeno S. Celaya*		Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.

PROZEDURA AZ022385 IRAKASLEEN TITULAZIOAK	2. eta 3. Hiru hilabetea	Ikastetxe pribatuak	Ainhoa Bustinza	G. Puyadena* S. Celaya M. Agirreazkuenaga		Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun. Laguntzarako dokumentazioa ikuskarien artean zabaldu.
PROZEDURA AZ023092 IKASLEEN ETA LANGILEEN GREBAK*	Ikasturte osoa	Ikastetxe publiko guztiak	Ainhoa Bustinza	A. Mendizabal R. Saez de Cortazar J. Lucas*		Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.
PROZEDURA AZ022353 IRAKASLEEN ABSENTISMOA**	Ikasturte osoa	Ikastetxe publiko guztiak	Ainhoa Bustinza			Dagokion ikuskariak eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.
PROZEDURA AZ022324 ESKOLATZEKO PROGRAMA OSAGARRIAK*	Ikasturte osoa. Eskarien arabera.	Eskari guztiak	Ainhoa Bustinza	Maite Ruiz* K. Delgado A. Ximeno		Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.
PROZEDURA AZ022308 ETXEAN EMAN BEHARREKO HEZKUNTZA ARRETA*	Ikasturte osoa	Derrigorrezko Hezkuntzako ikastetxeak (+ salbuespenak)	Xabier Balerdi	M. Jauregui B. Cabria M. Meijide		Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.

Bizikidetza – Gatazkak konpontzea

Azpiprozesua	Egiteko aldia	Aplikazio eremua	Ikuskaritza zentrala	Lurralde arteko Taldea	Lurraldeko Taldea	Ekimenak
AZ023387 ESKOLA-JAZARPENA ETA BIZIKIDETZA- PLANAK (BIZIKASI)	Ikasturte osoa	Ikastetxe guztiak	Ainhoa Bustinza	Talde espezializatua: V. Mosquera* I. Cía K. Bañares N. Turran J. Idoyaga E. Martinez A. Bastida J.L. Andrade		Jazarpen kasu guztien jarraipena %100ean egin. Ikuskariaren eskuhartze zehatzak jazarpen galdetegietan erregistratu. Jokabide suiziden protokoloak kudeatu. Zonako bileretan, hiru hilean behin gutxienez informazioa eman. Kasuen % 70a ikasturtean zehar itx.i Beste zerbitzuekin hiru hilabeteetan behin koordinazio bilera bat egin.
PROZEDURA AZ023381 IKASLEEN JOKABIDEAK ZUZENTZEKO PROZEDURAK*	Ikasturte osoa	Ikastetxe guztiak	Arrate Oianguren	I. Pardo* I. Intxausti X. Elosegui		Ikastetxetako fitxak errebisatu. Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.
PROZEDURA AZ023091 IKASTETXE PUBLIKOETAKO LANGILEEI EGINDAKO ERASOEN KASUAK**	Ikasturte osoa	Ikastetxe guztiak	Xabier Balerdi			Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.

Programen jarraipena – Sistemaren helburuak

Azpiprozesua	Egiteko aldia	Aplikazio eremua	Ikuskaritza zentrala	Lurralde arteko Taldea	Lurraldeko Taldea	Ekimenak
PROZEDURA AZ024364 ERALDATZEN**	Ikasturte osoa	Programaren barruan dauden ikastetxe guztiak	Xabier Balerdi	B. Rubio* M. Uribarren A. Ibañez		Eraldatzen talde teknikoan parte hartu.
PROZEDURA AZ024365 HEDATZE eta INDARTUZ**	Ikasturte osoa	Programaren barruan dauden ikastetxe guztiak	Ainhoa Bustinza	M. Amezaga M. Uribarren J. Nuñez*		Hedatze, He-indartze eta Indartuz programaren jarraipena egin.

Beste prozedura eta batzorde batzuk

Taldeak eta Batzordeak	Ikuskaritza zentrala	Taldeko Ardurad.	Lurralde arteko Taldea	Egitekoak
(V92) APLIKAZIOA HEZKUNTZA IKUSKARITZA	Nekane Zabaleta		C. Seco A. Zabala I. Intxausti I. Guirado*	Lan taldeek behar dituzten prozedurei doikuntza teknikoak egin. Aplikazioan sor daitezkeen arazoei erantzuna eman.
DIGITALIZAZIO BATZORDEA			C. Seco A. Eguiraun* I. Guirado	Plan digitalaren diseinuaren hastapenak. Ikuskarienei eta administrariei formazioa, hala badagokio.
IRAKASLEEN PROFILA	Arrate Oianguren		M. Morras I. Garcia* A. Uranga	Irakasleen ebaluazioarekin lotutako prozedurak diseinatu.

KALITATE BATZORDEA GOGOBEKETZEA NEURTZEA	Ainhoa Bustinza	R. Saez de C. M. Agirreazkuenaga I. Intxausti* I. Ortubia	V-92a errebisatu. Az-eten berrikuspenarekin jarraitzea, eraginkortasuna eta efizientzia handitzeko. Barne eta kanpo auditoretzen azterketa . Epe labur, ertain eta luzerako proposamenak egin. Dokumentazioaren kudeaketa berrikusi.
EUSKARAREN ERABILERA BATZORDEA	Ainhoa Bustinza	I. Pardo P. Bidarte M. Lizartza*	Txosten ereduak euskaratu eta plantillari hedatu. Euskaraz egiten diren txostenen kopurua handitu.
BERDINTASUN PLANAREN BATZORDEA	Arrate Oianguren	B. Kortabarria D. Quintana B. Rubio*	Ikuskaritzako Berdintasun plana diseinatzen hasi. Beste erakundeekin elkarlana sustatu.
KANPO EKIMENA BATZORDEA (ESTATUKOA ETA NAZIOARTEKOA)	Nekane Zabaleta	M. Ituarte* J. Blazquez X. Elozegui (STESSIE)	SICI-ko tailerretan parte hartu eta plantillari horren berri eman. STESSIE proiektuaren tailerretan parte hartu eta plantillari proiektuaren azken emaitzaren berri eman.
BERRIKUNTZAREN ZAINZA BATZORDEA	Arrate Oianguren Xabier Balerdi	M. Uribarren* G. Arroyo J. M. Arakama	Berrikuntza pilotajeak proposatu. Pilotajeen jarraipena egin.
EGUNERATZE NORMATIBORAKO BATZORDEA (LEX)	Arrate Oianguren	S. Celaya A. Mendiola* X. Mendoza	Eguneratu edo landu beharreko araudia identifikatzea. Sharepointa eguneratu eta elikatu. Plantillari hedatzea.
LHKO BATZORDEA	Ainhoa Bustinza	I. Lasso J. Bollar* Ana B. Martin	LHrekin elkar lana. LH-ko dokumentazioa prestatu ikasturte bukaerarako eta ikastetxeei helarazi.
PROZEDURA ELKARRIZKETA- LAGUNTZAILEAK**	Nekane Zabaleta		

PROZEDURA KOADERNO DIGITALA	Nekane Zabaleta Arrate Oianguren	A. Jaio	Konpetentzietan oinarritutako curriculumari jarraituz, koaderno digitala eta horren konkezio dokumentalaren jarraipena egitea.
PROZESUA (PR) IKUSKARIEN HARRERA ETA EBALUAZIOA	Arrate Oianguren	Marga Ruiz M. Solabarrieta X. Elosegui A. Ximeno*	Prozedura berrikustea. Ikuskarien profila errubrikatara eraman eta ebaluazio prozesuetan profila erabili. Ikuskarien ebaluazio prozesuak aurrera eraman.

Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritzeko jarduerak

Jarduera	Ikuskaritza zentrala	Arduraduna	Kideak
IRAKASLEEN ATXIKIPENAK**	Xabier Balerdi		Lurralde-buruak
BATXILERGOKO SARI BEREZIAK**	Nekane Zabaleta		P. Tomas* I. Olaskoaga
JAZARPEN-AGINDUAN OINARRITUTAKO BITARTEKARITZA**	Xabier Balerdi		S. Celaya A. Mendiola A. Uranga*
ESKOLATZE BATZORDEAK **	Xabier Balerdi		M. Jauregui J.M. Santiago L. Urraca
LEKUALDATZE-LEHIAKETEN BAREMAZIOA**	Xabier Balerdi		R. Saez de Cortazar; I. Lasso R. Martinez; A. Agudo; L. Guinea; M. Delgado; I. Garcia Ibañez M.J. Fernandez- L. Urraca

UNIBERTSITATERA SARTZEKO EBALUAZIO-PROBA**	Xabier Balerdi Nekane Zabaleta	Arloetako koordinatzaileak: I. Ortubia, M.J. Fernández, M. Agirreazkuegana, A. Mendizabal, M. Etxebarria, I. Olaskoaga, N. Zabaleta, P. Tomás, G. Puyadena, A. Ibañez
EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA ERALDATZEKO I. PLAN ESTRATEGIKOA (2025-2028)**	Xabier Balerdi	A. Baraiaetxaburu.
SEGREGAZIOARI AURRE EGITEKO ITUNA**	Xabier Balerdi	K. Bañares
Ebaluazio Foroa***	Xabier Balerdi Arrate Oianguren	

III. Eranskina: Hezkuntza Ikuskaritzaren formazio plana

Inguruabarrak

Hezkuntza Ikuskaritzaren eginkizuna funtsezkoa da hezkuntza-sistemaren kalitatea bermatzeko, ikastetxeen etengabeko hobekuntza sustatzeko eta irakasleen lana laguntzeko. Bere egitekoen artean dago ikastetxeetan garatzen diren prozesuak gainbegiratzea, ebaluatzea eta orientatzea; jarduera horiek guztiek eragin zuzena dute bai ikasleen ikaskuntza-aukeretan, bai hezkuntza-sistemaren ekitatean.

Testuinguru honetan, **etengabeko prestakuntza** ezinbesteko baldintza da ikuskarien jarduna eguneratua, koherentea eta eraginkorra izan dadin. Izan ere, hezkuntza-sistemak etengabe planteatzen dituen erronka konplexuek –curriculumaren berrikuntza eta eguneraketa, ebaluazio-eredu berrien garapena, hezkuntza inklusiboaren sendotzea, digitalizazioaren ezagutza sakontzea, besteak beste– zuzenean eragiten diote ikuskaritzaren esku-hartze pedagogikoari, juridikoari eta antolakuntzazkoari.

Ikuskariak, beraz, konpetentzia zabal eta eguneratuak behar dituzte, ikuspegi pedagogikoa, araudiaren ezagutza eta antolakuntza-trebetasunak uztartuz. Prestakuntza ez da aukera osagarria, baizik eta baldintza estrukturala Ikuskaritzaren funtzio estrategikoak modu eraginkorrean betetzeko.

Guztiarekin, prestakuntzak honako xede hauek bilatzen dituena:

Eguneratzea: Araudi berrien eta hezkuntza-joeren jarraipena egiteko.

Profesionalizazioa: Ikuskaritzaren jarduera pedagogiko eta antolakuntzazkoa sendotzeko.

Koherentzia eta elkarlana: Ikuskari guztien arteko ikuspegi bateratua eraikitzeke, jarduerak koordinatzeko eta jarraibide bateratuak eskaintzeko.

Kalitatearen hobekuntza: Ikastetxeek jasotzen duten orientazio eta laguntza hobetu eta, horren bidez, ikasleen ikaskuntza-aukerak indartzeko.

Etengabeko hobekuntza: Autoebaluazioaren, hausnarketaren eta berrikuntzaren bidez, ikuskaritzaren jardunaren eraginkortasuna eta prestigioa areagotzeko.

Oinarri juridikoak eta printzipioak

Euskadiko Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntza marko juridiko sendo batean eta hezkuntza-sistema osoa orientatzen duten printzipioetan oinarritzen da. 2023ko abenduaren 21eko 17/2023 Legeak, Euskal Hezkuntza Sistemari buruzkoak, espresuki aitortzen du Ikuskaritzaren eginkizun funtsezkoa, hezkuntza-sistemaren kalitatea, ekitatea eta etengabeko hobekuntza bermatzeko. Lege honek, gainera, ikuskaritzaren jarduna eta garapen profesionala inspiratu behar dituzten printzipio nagusiak ezartzen ditu: ekitatea eta inklusioa, bikaintasunarekin uztartuta; ebaluazioaren kultura hobekuntzarako tresna gisa; eta ingurune eleaniztun eta interkultural baten aldeko konpromisoa, non euskarak toki nagusia duen.

Testuinguru horretan, Ikuskaritzaren Hirurteko planak zehazten du bere egiteko nagusiak: araudia betetzen dela bermatzea, ikastetxeen praktika pedagogiko eta antolakuntzakoak orientatzea eta laguntza eskaintzea, hezkuntza-kalitatearen eskubidea eta ekitatea bermatzeko. Horretarako, ikuskariak sistematikoki prestatzea ezinbesteko tresna da, bere eginkizunak eraginkortasunez, efizientziaz eta kalitatez bete ahal izateko.

Era berean, Euskadiko Eskola Kontseiluaren txostenek azpimarratzen dute Ikuskaritzak gizartearen eta hezkuntza-sistemaren aldaketa eta eskakizunei erantzun behar diela etengabeko prestakuntzaren bidez; prestakuntza horrek ikuskarien profesionaltasuna, independentzia eta berrikuntza-gaitasuna indartu behar ditu. Balio horiek ezin dira bereizi Ikuskaritzaren zerbitzu publikoaren berme-izaeratik eta hezkuntza-komunitatearen eskubideen defentsatik.


Ondorioz, Formazio Plan hau ez da jarduera osagarri bat, baizik eta **egiturazko baldintza** bat Ikuskaritzak bere erantzukizun estrategikoak behar bezala bete ditzan. Araudi eta ikuspegi pedagogikoen etengabeko eguneratzearen, profesionalizazioaren sendotzearen, ikuspegi bateratu eta koordinatu baten eraikuntzaren, ikastetxeei ematen zaien orientazioaren hobekuntzaren eta autoebaluazioa zein berrikuntza sustatzearen bidez, prestakuntzak zuzenean laguntzen dio Ikuskaritzaren funtsezko misioari: **kalitatezko, ekitatiboa, inklusiboa eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako euskal hezkuntza-sistema bermatzeari**.

Formazio ibilbidea

Azken ikasturteetan garatu dugun prestakuntza-ibilbidearen laburpena aurkeztu nahi dugu jarraian. Epe honetan, funtsezko gaitasunen garapenean oinarritutako ikaskuntza-ikuspegia sendotu dugu, gure jarduna gaur egungo testuinguru profesional eta akademikoaren eskaeretara egokituz.

Prestakuntza-saioetan gai anitz landu dira: alde batetik, trebetasun tekniko espezifikoak eskuratzea; bestetik, zeharkako konpetentzien indartzea, hala nola lidergoa, komunikazio eraginkorra edo talde-lana. Era berean, irakaskuntza-metodologia ezagutu ditugu. Orobat, baliabide teknologikoak gure eguneroko praktikan modu eraginkorrean integratu dira.

Egindako ibilbide honek ikuskarion garapen pertsonala eta profesionala izan du ardatz, unean uneko beharrei erantzunez eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko gaitasunak indartuz. Etengabeko ikaskuntza izango da gure identitate profesionalaren oinarritzko zutabea, eta prestakuntza-plan honek norabide horretan egiten jarraituko du.



Azken 6 ikasturtetako kanpo formazio saio gehienak curriculum eta ebaluazio ardatzari dedikatu zaizkio, gutxien berriz, lidergoari eta kanpo ekimenari. Kalitatea kudeatzeko sistemari buruzko formazioa bereziki landu zen 2019-2021 ikasturtetan baina ez zaio jarraipenik eskaini ondorengotan.

2023-2024 ikasturtean digitalizazioak hartu zuen garrantzi nabarmena.

Formazioak hirurteko planen helburu estrategikoekin eta ikasturte bakoitzeko helburuekin bat etorri beharko luke eta aldi berean, formazio plan integralak ildoen behar, koherentzia eta orekari erantzun behar dio.

Aldi berean, prestakuntza-plan honen oinarriko printzipioetako bat etengabeko hobekuntzaren ikuspegia da. Ikaskuntza eta hausnarketa prozesuak modu jarraituan txertatuz, gure lan-jarduera berrikusi, egokitu eta hobetzeko aukera izango dugu, eraginkortasun handiagoa lortuz.

Horrenbestez, etengabeko ikaskuntza eta etengabeko hobekuntza izango dira gure identitate profesionalaren zutabe nagusiak. Prestakuntza-plan honek norabide horretan egiten jarraituko du, ikuskari gisa ditugun erronkei erantzun sendoa emanez eta gure jarduna etorkizunerako indartuz.

Helburu nagusiak

Hezkuntzako ikuskaritzarako 2025-2026 ikasturteko prestakuntza-plan integralaren helburua ikuskarien konpetentziak modu sistematikoan indartzea da, hezkuntza-ikuskaritza eraginkorra sustatuz eta etengabeko hobekuntzaren kultura sendotuz. Plan honek ikuskarien jarduna aberastea bilatzen du, bai eguneroko praktikan, bai etorkizuneko erronken aurrean duten erantzun-gaitasunean.

Bestalde, prestakuntza-plan honek ikuskarien lidergoa eta egokitzeko gaitasuna indartu nahi ditu, hezkuntza-sistemaren eraldaketan eragile aktibo gisa kokatuz. Horretarako, beharrezkoa da

konfiantzan, gardentasunean eta elkarlaneko lan-dinamikan oinarritutako praktika profesionalak garatzea.

Azken batean, helburua da ikuskariak gaitzea irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen araudia eta kalitatea betetzen direla bermatzeko, eta horrela hezkuntza-sistemaren bikaintasuna eta etengabeko hobekuntza bultzatzea.

Prestakuntza-plan honetako formazio-saio eta ekintza bakoitzak bere balorazio-prozesua izango du, bai parte-hartzaileen gogobetetasuna neurtzeko, bai helburuen lorpena aztertzeko. Ebaluazio horien bidez lortutako informazioak etengabeko hobekuntzari lagunduko dio, eta etorkizuneko prestakuntza-ildoak egokitze eta sendotze oinarri sendoa eskainiko du.

Ikuskariaren profila

Prestakuntza-plan hau diseinatzean, kontuan hartu da ikuskariak izan behar duten profila. Hezkuntza-ikuskariak duten eginkizuna ezinbestekoa da sistemaren kalitatea eta kohesioa bermatzeko, eta horretarako profil profesional sendoa eta eguneratua behar da. Profil horrek ez du soilik konpetentzia teknikoetan sakontzen; lidergo pedagogikoa, bitartekaritza-gaitasuna, aholkularitza- eta orientazio-lana, ikuspegi inklusiboa eta etengabeko hobekuntzarekiko konpromisoa ere biltzen ditu.

Zehaztutako profilean, ikuskarien eginkizun profesionalekin lotutako konpetentzia espezifikoak kontuan hartzen dira, baina baita zeharkako konpetentziak edo *soft skills* deritzenak ere, hala nola komunikazio eraginkorra, gatazken konponbidea, talde-lana, enpatia edo egokitze gaitasuna. Bi dimentsio horien uztarketak osatzen du ikuskarien profil osoa, eta prestakuntza-planak bide horretan lagundu nahi du, ikuskaritzaren jardun eraginkorra eta etengabeko hobekuntza bermatzeko.

DESKRIPTORE KONPETENTZIALAK

KONPETENTZIA			
K1 Ikuskatzea eta kontrola.	Ikastetxeen funtzionamenduaren ikuskatzea eta kontrola	Irakaslanaren eta zuzendaritza funtzioaren ikuskatzea	Araudia betetzearen zaintza
K2 Ebaluazioa	Irakaslanaren eta zuzendaritza funtzioaren ebaluazioa	Ikastetxeen ebaluazioa	Norbere lanaren ebaluazioa
K3 Aholkularitza	Aholkularitza eta orientazioa hezkuntza komunitateari	Informazioa hezkuntza komunitateari eta administrazioari	
K4 Bitartekaritza	Hezkuntza komunitateko sektoreen arteko bizikidetza-gatazken aurrean bitartekaritza		
K5 Komunikazioa	Txostenen bidezko komunikazioa	Komunikazio-estrategia eraginkorrak	Ezagutza digitala
K6 Konpromiso profesionala	Hobekuntza eta kalitatearekiko konpromisoa	Etengabeko garapen profesionala	Partehartzea eta lankidetzatza
K7 Lidergoa	Lidergoa (antolatze eta planifikatzeko gaitasuna, malgutasuna eta aldaketetara egokitzeko gaitasuna, sormena, arreta eta behaketa, talde-lana ...)		

2025-2026 urteko planaren helburuak

2025-2026 ikasturterako diseinatutako prestakuntzaren xedea Hezkuntzako Ikuskaritzaren urteko helburuei erantzutea da. Zentzu horretan, ekintza formatibo bakoitza ikasturteko lehentasun estrategikoak indartzera bideratu da, ikuskarien prestakuntza ez dadin helburu autonomo bat izan, baizik eta ezarritako helburuen zerbitzura dagoen tresna eraginkorra.

Beraz, prestakuntza-plangintza ez da ibilbide paralelo gisa ulertzen, baizik eta ikuskaritzaren jarduna gidatuko duten urteko helburuekin bat datorren laguntza zuzen eta koherente gisa. Horrela, garapen profesionalak hezkuntza-sistemaren benetako beharrei erantzungo die eta haren etengabeko hobekuntza bultzatuko du.

Ikasturte honetako helburu nagusiak honakoak dira:

2025-2026 Helburuak		
1. ARDATZA	2. ARDATZA	3. ARDATZA
1. Lan banaketa berrikustea eta lan-tresna digitalen erabilera hobetzea, ikuskaritzaren behar eta erronkei hobeto erantzuteko 2. Komunikazio-kanalak berrikustea eta egokitzea, informazioa modu garden, azkar eta arinean partekatzeke.	3. 2024-2028 Hezkuntza Emaitzak Hobetzeko Estrategiaren barruan, ikasleen emaitzen azterketa sistematikoa sustatzea ikastetxeetan. 4. Zuzendaritza taldeen jardun profesionala indartzea, lidergo pedagogikoa sendotuz eta ikuskaritzaren laguntza hobetuz. 5. Ikastetxeetan elkarbizitza eta ikasleen eta irakasleen eskubide eta betebeharren jarraipena egitea ikuskaritza-bisiten bidez. 6. Curriculumak ikastetxeetan nola inplementatzen ari den ikuskatzea.	7. Eskola Publikoaren 2025-2028 Plan Estrategikoaren ezarpenean ikastetxeei laguntzea, ikuskaritzaren orientazioaren eta jarraipenaren bidez, bide-orri estrategikoa errealitate bihurtzeko
8. Izaera transbertsala: Pertsonak. Jarduera profesionalaren kalitatea hobetzeko helburuarekin, pertsonen ebaluazio-prozesu integratu bat garatzea.		

Jarduera giltzarriak ikasturteko planean zehazten dira, eta prestakuntza-planaren zeregina da horiei erantzutea. Horrela, prestakuntza-ekintzak ez dira helburu autonomo gisa planteatzen, baizik eta urteko plangintzan ezarritako lehentasunak garatzeko eta horiek praktikara eramateko laguntza eta osagarri gisa.

2025-2026ko jarduera giltzarriak honakoak dira:

- **Curriculumak eta ebaluazioa.** 2024-2028 emaitzak hobetzeko strategiaren baitan ikastetxeekin batera hausnarketa prozesuak lantzea, ebaluazio hezitzailea sustatuz eta ikasleen ikaskuntza-prozesuak indartuz.

- **Ikastetxeetako lidergoa.** Lidergo pedagogikoa sendotzea, zuzendaritza-taldeei laguntza eskainiz eta ikastetxeen eraldaketa pedagogikoa bultzatuz, Eskola Publikoaren 2025-2028 Plan Estrategikoa kontuan hartuta.
- **Ikasleen ongizatea.** Ikastetxeetan jasotzen diren jazarpen- eta suizidio-datuen jarraipena egitea, pilotajearen zabalkundea bultzatuz eta ikasleen bizi-kalitatea hobetzeko neurriak indartuz.
- **Pertsonak.** Identitate profesionalak lantzea, irakasleen profilarekin batera balizko ebaluazio ereduetan sakontzea, ikuskarien harrera eta tutoretza indartzea, eta ikuskarien ebaluazio-sistemak garatzea.

Ikuspegi orokorra

Formazioaren printzipio gidariak

Gure formazio saioen hautaketarako funtsezko printzipioak oinarri dira, ikuskaritzaren garapen estrategikoa eta langileen hazkunde profesionala uztartzeko.

Helburua ez da soilik prestakuntza eskaintza antolatzea, baizik eta ikaskuntza prozesuak planifikatzea modu koherente eta eraginkorrean, baliabideak ondo aprobetxatuz eta epe luzerako inpaktu positiboa bermatuz. Testuinguru aldakor eta lehiakor honetan, beharrezkoa da aukeratutako formazio saioek ikuskaritzaren erronkei eta aukerei modu zuzenean erantzutea, langileen motibazioa eta gaitasun berrien eskuratzea indartuz.

Honakoak dira printzipio horiek:

- Saioek bat etorri behar dute ikuskaritzaren xedearekin, ikuspegiarekin, balioekin eta helburu estrategikoekin.
- Aurretiazko ebaluazioetan, asebetetze galdetegietan edo jardunaren azterketan identifikatutako konpetentzien, trebetasunen edo ezagutzen arrakalei erantzun behar diete.
- Aplikagarritasuna bermatu behar dute, ikuskariak eguneroko lanera azkar eraman ditzaketen edukiak bultzatuz.
- Ikuskarien profila kontutan hartuko dute, aurretiko prestakuntza, esperientzia eta eginkizunak kontuan hartuz.
- Saio anitzak diseinatzea, kokapenei, ordutegiei eta baliabideei dagokienez bideragarriak izango direnak.
- Adituak emandako saioak hautatzea, ezagutza, metodologia aktibo eta parte-hartzaileen arabera (tailerrak, kasu praktikoak, simulazioak).
- Lehentasuna ematea hezkuntza esparruan sortzen ari diren gaiei, teknologia berriei, indarrean dagoen araudiari eta hezkuntza sailaren ildoei.
- Oreka bilatzea inbertitutako denboraren eta lortutako emaitzen artean, modalitatea (presentziala, birtuala, hibridoa) helburuaren arabera egokituz.
- Inpaktuaren, gogobetetzean edo zerbitzuaren kalitatean hobekuntza neurgarriak sor ditzaketen saioak hautatzea.

Metodologia eta antolaketa

Ikuskaritzan barne-prestakuntza eta kanpo-prestakuntza uztartuko dira, norberaren baliabideak kanpoko espezialisten esperientziarekin konbinatuz. Barne-prestakuntzak aukera ematen du erakundearen barruan metatutako ezagutza aprobetxatzeko, eta taldeen arteko lankidetzak sustatzeko. Bestalde, kanpoko prestakuntzak sektorearen joeren aurrean eguneratzea, metodologia berrietarako sarbidea eta aditu independenteen ikuspegia eskaintzen ditu, bi modalitateen arteko oreka aberasgarria sortuz.

Ikaskuntza eraginkorrak bermatzeko, metodologia desberdinak erabili ahal izango dira, parte-hartzaileen helburuen eta profilen arabera:

- Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza (ABP): Erakundearen kasu edo arazo errealak ebaztea.
- Tailer praktikoak: Parte-hartze aktiboa sustatzen duten ariketa aplikatuak.
- Simulazioak : laneko egoerak birsortzea, erantzunak eta zailtasunak antzemateko.
- E-learning: Eduki digital eskuragarriak, formatu labur eta malguetan.
- Elkarlaneko ikaskuntza: esperientziak eta ezagutzak trukatzeko sustatzen duten talde-jarduerak.
- Hitzaldiak eta mintegiak: ezagutza teknikoak edo espezializatuak transmititzeko
- (...)

Erabiliko diren metodologiaren artean, talde-lana ere aurreikusten da, hautatutako testu, artikulua edo bestelako materialen irakurketatik abiatuta. Praktika honek hausnarketa kolektiboa, azterketa kritikoa eta ikuskarrien arteko ikuspegi-truke aberasgarria sustatzen ditu. Horren bidez, edukien ulermenean sakontzen da eta ezagutza partekatua modu sendoa eraikitzen da. Elkarriketa eta lankidetzak bultzatuta, ikaskuntza esanguratsuagoa lortzen da, eta hori lan-testuinguruan modu eraginkorrean aplikatu daiteke.

Ikasturteko formazio saioen planifikazioa


Lan eremua	Gaia	Hiruhilekoa	Arduradunak
Digitalizazioa	Adimen artifiziala eta ikuskaritzaren jarduerak	3.hiruhilekoan	Digitalizazio taldea
Komunikazioa	Komunikazio planak/ Komunikazio dinamikak	3.hiruhilekoan	Ikuskaritza zentrala
Hizkuntza	Ahozko eta idatzizko komunikazio eraginkorra	3.hiruhilekoan	Euskara batzordea
Curriculum eta ebaluazioa	Nola ebaluatzen dira konpetentziak?	1.hiruhilekoan	Curriculum eta ebaluazio AZ

Curriculum eta ebaluazioa/ Bizikidetzatza	Diagnostiko tresnak (ITT, eskola adimentsua, bizilagun...)	1.hiruhilekoan	Curriculum eta ebaluazio AZ Bizikidetzatza taldea
Bizikidetzatza/ Hezkidetzatza	Nesken eta mutilen ikas- emaitzen arteko aldeak	1.hiruhilekoan	Ikuskaritza zentrala Berdintasun batzordea
Identitate profesionalak	Pertsonen ebaluaziorako prozesuak	2.hiruhilekoan	Ikuskarrien harrera eta ebaluazioa
Lidergoa	Lidergoa eta konpetentzien ebaluazioa	2.hiruhilekoan	Lidergo AZ
EHIEE		2.hiruhilekoan	

Irakurketa partekatua

Kalitate sistemak						
Jokabide nahaste larriak ikastetxeetan						
Inklusioa vs Segregazioa						

Prestakuntza saioak



IKUSKARI BERRIEN HASIERAKO FORMAZIOA 2025-2026

Tokia/eguna	Arduraduna/k	Jarduera
Tokia: GIPUZKOA Eguna: Azaroa	Xabier Mendoza Imanol Guirado	1 Kontrola Digitalizazioa Kalitatea Aplikazioak (V92, egutegiak, W67, EDD, matrikula,...) K5: komunikazio konpetentzia
Tokia: ARABA Eguna: Abendua	Maite Ruiz	2 Modulua Txostena Bisita K5: komunikazio konpetentzia
Tokia: BIZKAIA Eguna: Urtarrila	Eva Martinez	3 Protokoloak (elkarbizitza, jazarpena, babesgabetasun, suizidioa...) K4: bitartekaritza
Tokia: BIZKAIA Eguna: Otsaila	Ainhua Baraiaetxaburu	4 Zuzendaritza: Hautaketa Funtzioaren ebaluazioa K2: ebaluazioa
Tokia: GIPUZKOA Eguna: Otsaila / Martxoa	Joxemari Arakama Gurutze Puyadena	5 Ikuskatzea: curriculum, IUP, memoriak, eskola-emaitzak K1: ikuskatzea eta kontrola
Tokia: BIZKAIA Eguna: Martxoa / Apirila	Alberto Mendiola Asier Eguiraun	6 Araubidea Enplegatu publikoaren diziplina araubidea K3: aholkularitza
Tokia: BIZKAIA Eguna: Apirila / Maiatza	Miren Agirreazkuenaga Ibon Intxausti	7 Misio bisio eta balioak Balio etikoak Kalitate sistema K6: konpromiso profesionala

Balorazio eta jarraipen tresnak

Prestakuntza-saioak irizpide argi eta neurgarriei jarraituz ebaluatuko dira:

- Edukiaren garrantzia: Antzemandako beharren eta formazio saioaren arteko lerrokatze-maila.
- Kalitate pedagogikoa: metodologia aktiboen erabilera, ezagutzak transmititzeko argitasuna eta ikuskarien profilerak egokitzea.
- Aplikagarritasuna: ikasitakoa lanpostura transferitzeko aukera.
- Eraginkortasuna. Inbertitutako baliabideen eta lortutako ezagutzen arteko erlazioa.
- Gogobetetzea
- Ikuskarien ekarpenak eta hobekuntza proposamenak.

Ikuskaritza zentralak baloratuko du bertaratze-maila, parte-hartzea eta inplikazioa; konpromisoa eta lankidetzak.

	1F	2F	3F	4F	5F	6F	7F	8F	9F	a)	b)	c)
EBALUAZIO-ORAKO LORPEN ADIERAZLEAK (1-10)												
1.- Edukiaren garrantzia Antzemandako beharren eta formazio saioaren arteko lerrokatze-maila.												
2.- Kalitate pedagogikoa Metodologia aktiboen erabilera, ezagutzak transmititzeko argitasuna eta ikuskarien profilerak egokitzea												
3.- Aplikagarritasuna Ikasitakoa lanpostura transferitzeko aukera.												
4.- Eraginkortasuna Inbertitutako baliabideen eta lortutako ezagutzen arteko erlazioa.												
5.- Gogobetetzea												
5.- Indarguneak												
6.- Hobekuntza proposamenak												

Ikuskaritzako administrarientzako formazioa

Administrarientzako formazioa eskainiko da, batez ere tramitagunearen erabilerari eta bestelako tresna digitalen kudeaketari buruzkoa. Horrela, administrazio lanetan eraginkortasuna eta koherentzia handiagoa lortuko da.

Formazio saioak

Formazio saioak honako parametro hauen arabera antolatuko dira eta osatu ahala eranskin gisa txertatuko dira planean:

FORMAZIOAREN GAIA:	
Moduluaren arduradunak:	
Hizlarien aurreikuspena:	
Moduluaren iraupena:	
Saioen denboralizazioa:	
Lekua:	
Helburuak:	
Oinarrizko jakintzak:	
Metodologia:	
Baliabideak:	
Ebaluazioa:	